





PSNren hordago ustela

- **Hezkuntza** Premia bereziko ikasleak nola integratzen diren eskoletan
- **Ane Ablanedo Larrion** «Haurrak hezi beharrean hazi egin beharko genituzke»
- **Zero Zabor** Gipuzkoarren laurdenak hondakinen %75 birziklatzen du
- **Tribuaren Berbak** Telebista saioa soziolinguistikatik aztertu dugu
- **Herri bozak Iparraldean** Hautagaitza nagusien aukerak
- **Net Hurbil** Inperioen talka berriz, Ukrainan

argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioa
- Promozio bideoak
- Dokumentalak (iraupen luzeko grabazioak)
- Itzulpenak eta azpigitulazioa

ARGIAren bidezko zabalkundea,
GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta modu oneko prezioetan

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta 1.200 bideo baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.com



Azaleko argazkia:
ARGAZKI PRESS
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta
argitara ditzakezu, gure
egiletza aitortu eta baldintza
beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria:
Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-
Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura:
Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa:
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara:
Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander
Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner.
Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco.
Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza
teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite
Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego
Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte.
Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-
Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa
Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia.
Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1,
2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa:
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel:
948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala:
komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com.
Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com.
Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X.
Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L.
Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko
harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal
Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182
euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L.
Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko martxoaren 16a, 2.407. zenbakia

ASTEKO GAIA

INTEGRAZIOA ESKOLAN Premia berezidun haurrei laguntzeko hiru
eredu. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

ANE ABLANEDO LARRION: «Gure naturarekin adiskidetu-
kaituen haziera behar da haurrentzat». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

SAGARDOTEGIAK Kalean ere txotx egiteko aukera badago.
ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 14

PREKARIETATEAREN AURPEGIK Bekarik ez nuela jakinda, urtea
beste era batera antolatuko nukeen. I. ZUBIRIA ETXEBERRIA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

BAGOA GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 18

GALDERAK JON ALONSO / 20

ESKUINERA DOA IXABEL ETXEBERRIA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

ZIRTAK Makarrak. IRATXE ESNAOLA / 19

TXANDAN Nomadak. AMETS ARZALLUS / 20

ERDIKO KAIERA

DAMBA: «Gure estiloa lantzen duen beste talderik ez dago
Euskal Herrian». LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 22

NORKA CHIAPUSSO: «Zorionez, Euskal Herriko arte eszenikoen
kalitatea altua da». MYRIAM GARZIA / 24

GUK GEURE KULTURAZ Kulturaren ekosistema egituratu dadin,
oinarri bila. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 25

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URÍA / 26

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 27

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 28

ALEA Nola bizi hala kanta. MIKEL ASURMENDI / 29

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 30

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 31

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 32

TERMOMETROA

HONDAKINAK Usurbil 2009-Gipuzkoa 2014: aldaketa handiaren
gakoak. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 34

TRIBUAREN BERBAK Ordu erdiko hizkuntza dosi atsegina.
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 39

HERRI BOZAK IPARRALDEAN Abertzaleen ahots ozena aldaketa
garaian. MIKEL ASURMENDI / 42

NAFARROA Zentsura mozio bat, beltzera itzalia.
GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL 1914a ospa dezagun Ukrainan gerra berria berotuz.
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Premia berezidun haurrei laguntzeko hiru eredu

Urteak dira ikastetxe arruntetako ateak ireki zitzaizkiela premia bereziak dituzten haurrei. Hobeago edo okerrago, integrazioaren bidea urratzen ari dira Nafarroan, EAEn eta Iparraldean. Funtzionamenduaren, baldintzen eta egoeraren berri eman digute hiru ereduotako hezitzaile, pedagogo terapeuta eta laguntzaileek.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

JOLASAK, LIBURUAK, MAPAMUNDIA ikusi ditugu apaletan, eta geografia ikasteko koloretako purpurinaz herrialdeak bereizita dituen Afrikako mapa paretan eskegita, besteak beste. EKT gela da, Egokitzapen Kurrikular Taldea, Mendillorriko Pedro de Ursua institutuan (Iruñean). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten ari diren lau mutilek arretaz jarraitzen dituzte irakaslearen imintzioak: mimika bidez, aurten euskaraz ikasi dituzten lanbideak irudikatzen ari da Mikel Gonzalez, eta zein lanbide den asmatu behar dute gazteek. Pedagogo terapeuta edo heziketa bereziko irakaslea da Gonzalez, hezkuntza munduko argotean PT deritzona, eta behar bereziak dituzten haurrekin aritzen da, talde txikitan. Giro ona arnastu dugu. “Duela hamabost egun etorri bazina...”. Dirudienez, ikasturtea erlaxatuegi hasi zuen, eta harrotu egin zitzaizkion lau ikasleak, gaina hartu: “Hain gutxi garenez eta hain harreman estua sortzen denez, batzuetan zaila da distantzia ezartzea, baina gutxieneko distantzia bat beharrezkoa da, oreka lortzea”. Eta lortu dute giro egokia, konfiantza, errespetu. Diktaketa egiten utzi ditugu.

Ikasleak laguntza berezia behar izateko arrazoiak ugariak dira: fisikoak (mugimenduzkoak edo motorikoak, paralisiak, afasiak...), sentesorialak, psikikoak, komunikaziozkoak (entzun eta ikusteko zailtasunak, hizkuntzari loturikoak...), adimenarekin zerikusia dutenak (garapen orokorrean atzerapena, autismoari lotutako nahasteak...), portaera arazoak, edota gizarte eta familia arazoak. Desoreka eta hutsune emozionalekin datozen umeen

kopuruak gora egin duela nabarmendu dute elkarriketatuek, eta egoera horretan asko kostatzen zaiela haurroikasketetan zentratzea: azken finean, eskola gizartearen isla dela gogoratu dute, eta gero eta jende gehiago artatzen ari badira Gizarte Zerbitzuetan, baldintza sozio-ekonomikoek seme-alabei ere eragiten dietela, baita emozionalki ere.

Talde arruntetik talde txikira eta alderantziz, Mendillorri

Hiru ikastetxe mota daude Nafarroan: arruntak, lehentasunezkoak eta berariazkoak. Lehentasunezkoak prestatuak daude mugimendu arazo oso bereziak dituztenentzat eta gorrentzat, eta beraz horiek dute preferentzia. Kasu muturrekoenetarako, berariaz horiei zuzendutako lau ikastetxe daude. Ikastetxe

arruntetan, Lehen Hezkuntza-ko tutoreak antzeman ohi ditu heziketa premia bereziak dituzten ikasleak. Ondoren, orientatzaileak koordinatuko du ebaluazioa eta osatuko du irakaslearekin batera umearentzako plangintza egokitua. DBHn, gaztea ebaluatuta iristen da normalean. Baliabide

material asko Hezkuntza Bereziko Nafarroako Zentroak (CREENA) lortzen dituzte ikastetxeek material gehientsuena gaztelaniaz eta zentro honi dagokio baita ere Hezkuntza Sailak jarri behar dituen baliabide pertsonalak bideratzea. Hots, zaintzaileak, PTak, fisioterapeutak, gutxiengoaren irakaslea, zeinu interpretatzaileak, logopeda... “Baliabideak badaudela esaten zaie gurasoei, baina baliabide pertsonalak oso murriztuta dira eta horiek dira hain juxtu garrantzitsuenak”, aitortu du Iñaki Martinez

Helburu akademikoa ez da beti aurrena, baizik eta sozializazioa –gelako zati izatea–, autonomia, arlo emozionala, lagunak egiten eta mantentzen jakitea...



Mendillorriko institutuko orientatzaileak. Murrizketak egon direla nabarmendu du Martinezek: iaz esaterako PT bat gehiago zuten lanaldi erdiarekin, aurten bakarra bi hereneko lanaldian, Mikel Gonzalez. “Hori da D eredu-ko 631 ikasleentzat dagoena”. Nafarroako instituturik handienetakoa da Mendillorrikoa, eta A, G (bien artean 616 ikasle) eta D (631 ikasle) ereduak ditu.

Ikastetxe horretako esperientzia kontatu digute Gonzalezek, Martinezek eta Ana Astrain gela arrunteko tutoreak. Beharren arabera joaten dira antolatzen, eta emaitzen arabera bidea mantentzen edo aldatzen doaz, esperimentatzen, probatzen. Bai Lehen Hezikuntzan, bai DBHn, behar bereziak dituzten ikasleak ikasgela arruntetan egoten dira, haur denak batera, eta ikasgai batzuk gela berezietan ematen dituzte, talde txikitik (gehienez 12 ikasle). Ulermen arazoak dituztenak, oso ume direnak, autoestimua baxukoak, hiperaktibitate nahasteak dituztenak, talde handian galtzen direnak... doaz talde txikira, baina malguta da joan-etorria: egokitzapenaren arabera edo hasierako oztupoak gaindituz gero, urtean zehar talde txikitik talde arruntetara bueltatu daiteke gaztea ikasgai jakinetan, eta alderantziz. Talde batzuetako nahiz besteetako arduradunak irakasle arruntak dira.

Premia oso bereziak dituztenentzat, EKT gela sortu dute Mendillorrian, eta PTa da horko arduraduna. Ikasle hauek EKTn ematen dituzte asteko ikastordu gehienak (bi heren) eta gela arruntetan gainerakoak. EKTn, errepertorio klasikoak erabiltzen du Mikel Gonzalez pedagogiko terapeutak (fitxak, diktaketak...), baina material atipikoagora

Mikel Gonzalez
heziketa bereziko
irakaslea, gela
itxian eskola
ematen. Bere
hitzetan,
inportantea da
haurrok eskolan
aurrera egiten ari
direla ikustea eta
ilusioa
mantentzea,
bestela porrot
sentsazioaren
zama ikastetxetik
at eramango
dutelako haiekin.

jotzen du maiz. Aurten adibidez, dituen lau ikasleetako batek xakea atsegin du eta partidak jokatzen dituzte elkarren kontra. Edo duela bi urte, ikastetxean bertan duten sukaldelara eramaten zituen haurrak, motibatzeke: erosketak egiten zituzten, janaria prestatu... eta horietako bi sukaldaritza ikasten ari dira orain. Puzzleak egiten, plastikan, jolasen... ere aritzen dira, eta egunero pertsianak jaitsi, musika jarri eta zazpi minutuz erlaxatzeko ariketak egiten dituzte.

“Material berdina banatzen saiatzen naiz, denak berdin senti daitezten, baina bakoitzari ezberdin exijitzen diot –azaldu du Gonzalezek–. Gaur adibidez azterketa egin dugu eta galderak etxera eramaten utzi diot bati, lasaia go erantzun ditzan... Helburuak ere ezberdinak baitira: bi ikasleren kasuan oinarritzko hezikuntza titulua atera dezaketela ikusten dugu; beste biek oso zaila daukate, eta helburuak ez dira hainbeste curricularrak, oinarritzko heziketari lotuagoak baizik: jarrera eta portaera ona izatea, saiatzea, txandak errespetatzea, gainerakoak ez iraintzea... Talde handietan, norbait garrasika hasten bada zuzenean kanpora bota ohi du irakasleak, ez dauka astirik harekin bakarrik aritzeko, baina talde txikian tresna gehiago dauzkagu hori guztia lantzeko, familiarrean egongo bagina bezala, eta mugak eta neurriak malguagoak dira”.

Ikasle hauek egingo duten bidea zedarritzeke, irakasle, PT eta orientatzaileen arteko hartu-emana garrantzitsua da, baita gurasoen inplikazioa ere. Ana Astrainen hitzetan, ikasturtea aprobetxatu dezatela da asmoa: “Eduki gutxiago ikasiko dituztela? Bada hala izan dadila, gela handian ere hala gerta daiteke, eduki



pila bat eman arren; baina gutxienez urte baliagarria suerta dakiela”. Zentzu horretan, Gonzalezek gaineratu du inportantea dela eskolan porrot egin dutenik ez sentitzea, aurrera egiten ari direla ikustea eta ilusioa mantentzea, bestela porrot sentsazioaren zama ikastetxetik at eramango dutelako haiekin.

Hezitzaileak uneoro, EAEn

Ospe ona dauka Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban jarraitzen duten integrazio ereduak. Hemen ere, umea aurretik diagnostikatuta ez badator tutoreak eman ohi du lehen urratsa eta ondoren tokian tokiko Berritzeguneek bideratzen dute gaia. Haurrak, 2 urteetatik –eta behar izanez gero, Batxilerrera arte, kasuren batzuetan baita unibertsitatean ere– Nafarroan dituzten antzeko profesionalen laguntza izango du, baina hezitzailea izango da oinarria: PTak –tutore, hezitzaile eta gainerakoen laguntzaz– zehaztuko du ikasleak egin beharreko ibilbidea, eta ibilbide hori gauzatzeko haurrak hezitzailea izango du ondoan. PTak lauzpabost ordu egiten ditu astean gaztearekin eta gainerako ikastordu guztietan hezitzailearekin egoten da.

Antzina, umeok eskola berezietara eramango lituzkete, baina duela 30 bat urte Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza sailaren ardura hartu eta Integrazio Legea jarri zuen martxan. Ordura arte, asistentzia lana egiten zuten laguntzaileek, baina haurrok eskola arruntetan integratu zituztelarik, zaintzaileak hezitzaile izatera igaro ziren, titulaziodun profesionalak (Integrazio Soziala goi mailako ikasketadunak). “Prestatutako jendea gara, baina Eusko Jaurlaritzak oraindik ez digu kendu jangelan eta joan-etorriko garraioan egoteko ardura; hezitzaile izatearekin batera zaintzaile lana ere gure gain uzten dute, eta horrek hainbatetan

Ezker-eskuin:
Iñaki Martinez Urmeneta orientatzailea,
Ana Astrain Unanua gela arrunteko tutorea
eta Mikel Gonzalez Sagues pedagogo terapeuta,
Mendillorriko institutuan; Maite Alkorta, Marilu Eizagirre eta Itziar Aranburu hezitzaileak,
Zarauzko ikastetxe publikoan; eta Maitena Arbeletxe AVS eta hezitzailea,
Larzabal ikastolan.

esan nahi du goizean goiz autobusa hartzea haurrarekin, eskola orduetan eta jolas-garaian lagundu ostean jangelan ere alboan izatea, 45 minutu izatea bazkaltzeko eta berriz gelara eta gero garraioan haurrarekin bueltatzea”. Zaintzaile funtzioa kentzea dute aldarri, Andoain, Zarautz eta Lasarten hezitzaile dabilen Itziar Aranburu, Marilu Eizagirre eta Maite Alkortak kontatu digutenez.

DBH2tik aurrera, premia bereziak dituzten ikasleak laguntza gela itxietan egon ohi dira –lauzpabost haur taldeko, PTa eta hezitzailea– eta ikasgai gutxi batzuetan gainerako ikasleekin egoten dira. Maila horretara iritsi arte, ordea, haurra ahal bezainbeste gela arruntan egotea da filosofia orokorra. “Gelako erritmoa eta tutorearen martxa ahal den neurrian jarraitu dezan saiatzen gara, material egokituarekin –dio Itziar Aranburuk–. Adibidez, gelaurrean aurkezpen batzuk egiten ari gara orain eta hitz egiten ez duen haur batekin ari naizenez, berak landutako materiala ikaskide baten ahotsaz grabatua du eta aurkezpena egi-terakoan berak badaki zein unetan piztu eta itzali behar duen grabagailua. Gelako burrunbarekin edo dena delakoarekin haurra urduritzen bada, askatasun osoz ateratzen gara buelta bat ematera edo liburutegira, psikomotrizitate gelara...”. Malgutasuna eta inprobisazioa dituzte eguneroko lantresna.

“Hasieran, hari afektiboa lantzen dugu umearekin –azaldu du Marilu Eizagirrek–, gustura egon dadila, bere buruarekiko ere ondo sentitzea, eta behin hori lortuta, oinarria daukagu aurrera ekiteko eta helburuak lantzeko”. Premia handiak dituzten haurrak izanik, helburu akademiko ez da beti aurrea, baizik eta sozializazioa –gelako zati izatea–, autonomia, arlo emozionala, lagunak egiten eta mantentzen jakitea... Eta bide horretan, elkarlana



da gakoa, haurraren inguruan lanean ari diren profesional guztien artean. Hala, koordinaketa bileran, ebaluaketetakoan eta gurasoekin egindakoetan, hezitzaileak ere parte hartzea borrokatu dute urteotan, eta Eskola Kontseiluan ordezkaria izatea lortu dute. “Alde horretatik asko hobetu dugu eta oro har baloratuta gaude ikastetxeetan, aintzat hartzen dituzte gure iritzi eta ekarpenak, eta elkarlan hori egituratuta dagoenean (astero PTa, tutorea eta hezitzailea biltzea, adibidez), lantresna bihurtzen da, emaitzetan antzematen da”, ziurtatu digu Eizagirrek.

Baina funtzionatzen duen ereduia sustatu ordez kumartzen ibiltzea leporatu diote administrazioari, irizpide ekonomikoak irizpide pedagogikoen aurretik ipintzea, “eta ezin da hezkuntzan dirua aurreztu, horrek kalitatea jais-tea ekarriko duela dakizunean”. Haur matrikulazioa handitu egin da eta hezitzaile kopurua aldiz, jaitsi (770 dira gaur egun, HH, LH eta DBHrako). Dauden giza baliabideen arabera ikastetxe bakoitzari hezitzaile kopuru bat egokitzen zaio eta horrekin moldatu behar dute, baina beti ez omen dira nahi adina haurrengana eta nahi moduan iristen. Koordinaketa bilerak haurrak eskolan ez daudenean egiteko Jaurilaritzaren proposamena ildo berarekin lotzen dute: “Horrek ez du soilik esan nahi ordu gehiago sartzea, baita sarri irakasleek eguerdiko orduak edo eskola amaitu ondorengoak baliatzen dituztela bilera horietarako eta guk ezin dugu, jangelan edo garraioan haurra zaintzen egon behar dugulako. Hainbeste urte gure parte-hartzea handitzeko borrokan, eta orain bat-batean halakoak etortzen zaizkigu, langileak aurrezteko”. Gainera, gogoratu dute

Gela berean denak batera aritzeak ez du bermatzen integratuta egotea. Batzuetan eta batzuentzat, liberazioa ere bada gela itxietara joatea

hamar urte daramatzatela hitzarmen berarekin, duela bi urte soldata jaitsi zieten eta ez zaiela igo, “baina kolektibo txikia garenez administrazioan ez gaituzte kontuan hartzen”.

AVSak paratzen ditu Hezkunde Nazionalak, eta hezitzaileak Seaskak

Haur guztiek, ahalmen urritasuna dutenek barne, eskola arruntera joateko eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak izateko eskubidea dutela dio 2005ean Frantziako Gobernuak onartutako legeak. MDPH erakunde publikoak (Pertsona Ezinduen Etxe Departamentalak) kudeatzen du gaia eta berau arduratzen da ezintasunen bat duten umeei eskolatze proiektu pertsonalizatua (PPF) zehazteaz, umeak inguruan dituen profesional guztien oharrak aintzat hartuz. Idatzia berrikusten eta aldatzen joaten dira eta behar duten haurrei AVSa jartzen zaie: auxiliarra edo laguntzailea. Hezkunde Nazionalak, ordea, kopuruz beti gutxiengoa eskaintzen duela kexu da Integrazio Batzordeko lehendakari Karine Perez, “eta gainera, dirurik ez dagoela-eta, formaziorik gabeko jendea hartzen dute AVS gisa aritzeko, urritasuna duten umeekin inoiz lan egin gabeak. ‘Hori ala deus’ esaten digute, eta eskola publikoan hartu egiten dituzte, baina Seaskan hezitzaileak jartzen ditugu, formakuntzarekin, eta horretarako eskubidea dugula argudiatuta

administrazioaren kontra auzitara jo dugun guztietan irabazi egin dugu”. Seaskan, halaber, pedagogia aholkulariak eta familiari laguntzeko Integrazio Batzordeko langileak dituzte.

Maitena Arbetetxe Lapurdiko Larzabal ikastolan ari da lanean, autismoa duen haur bat laguntzen: AVS gisa astean 18 oren egiten ditu harekin, eta beste 2 hezitzaile gisa. Gela arruntean, AVS da Arbetetxe eta tutorearekin elkar hartuta egiten du lan, haurraren proiektu pertsonalizatua abiapuntu. “Haurraren alboan izaten naiz, baina kapaz dela edo lagunekin dagoela ikusten dudalarik, pixka bat urruntzen naiz; makuluarekin alderatzen dut gure lana: haurrak laguntzeko gara hor, baina ez dugu ahanzi behar helburua dela ahal den neurrian baliagabeko bilakatzea, umeak ahal bezainbat autonomia lortzea. Alde afektiboa oso garrantzitsua da, noski, baina umeak badaki ondoan zarela eta pixka bat egiten ahal badu, kasu egin behar zaio horri”.

Hezitzaile bezala, buruz buru aparteko gelan egoten da ikaslearekin. Ariketa egokituak, jokoak, piktogramak... ditu gidaliburu. Proiektua berrikusiko dute orain eta haur

INTEGRAZIOA ESKOLAN

honen kasuan hezitzaile oren gehiago beharko lituzkeela ikusten du Arbetetxek, baina finantzamendu handiagoa beharko litzateke. “AVS kontratua Hezkunde Nazionalarekin daukat, baina hezitzaile lanpostua Seaskak hartzen du bere gain eta Integrazio Batzordeak ere lan egiten du finantzamendu hori lortzeko. Legea biziki polita da, baina praktikan administrazioak egiten duena beste zerbait da, oso baldintza txarretan ari gara lanean”.

Harremanak, frustrazioak eta lorpenak

Sarri, aurrerapenen bat egitea, txikia bada ere, kostatu egiten zaie ume hauei eta hezitzailearentzat frustrantea izan daiteke hain mantso joatea, baina aldi berean zerbait lortzen duten bakoitzean sentitzen den poza zaila da beste haurrekin sentitzea, diote. “Beste batzuek ikusten ez dituzten gauzak ikusten dituzu –azaldu du Marilu Eizagirrek–, umeak ‘pixa’ hitzaren esanahia ulertu zuenean adibidez, izugarri pozgarria izan zen niretzat, kanpotik begiratuta tontokeriatzat har badaiteke ere; haurrak komunikatzea lortzen duenean jauzia sekulakoa da”. Azken finean, bi-hiru urte egoten dira askotan ume berarekin, batzuetan baita sei urtez ere, eta harreman estua garatzen dute. “Hainbatetan bigarren ama edo aita ere bilakatzen gara nolabait, badu familiaritate zerbait”, aitortu du Mikel Gonzalezek.

Dena den, argi du Itziar Aranburuk: plaza bera mantentzea ongi dago ilusioa duzun bitartean, eta hainbatetan aldatzea ere ez da txarra, haur horrekin hasierako ilusioa galdu baduzu, sormena falta bazaizu, edo umearekin enpatiarik lortu ez baduzu. Kasu batzuk, gainera, nekezak eta gogorak dira, eta onurgarria da aldaketa.

Lortzen al da integrazioa?

Batzuetan funtzionatzen du eta bestetan zailagoa da, kasuaren arabera, onartu digute Iruñeko irakasleek. Martinez orientatzailearen hitzetan, gela berean denak batera ari-

Hezitzaile ona

Pazientzia hezitzaile izateko ezaugarri inportantea deritzote elkarriketatuek, baita sormena ere, inprobisatzen jakitea, tutorearen eta gelaren dinamika jarraitzen asmatzea, sen ona, eta haurrekin harreman afektiboa garatzeko gauza izatea. “Behar duzu sartu hauraren munduan, enpatia lortu, garrantzitsua da ahal den neurrian ulertzea nola ikusten dituen berak gauzak eta ikuspegi hori barneratzea, lagundu ahal izateko”, diosku Maitena Arbetetxek.

tzeak ez du bermatzen integratuta egotea, eta adibidez, taldekideekin eta bere buruarekin gaizki zegoen haurra EKT gela berezian sartu dutenetik askoz hobeto dago. “Hala ere –gaineratu du Gonzalez PTak–, garrantzitsua da gela orokorrean ere ordu batzuk sartzea, bakarrik ez daitezen egon egun osoan, bestelako harremanak behar dituzte”. Eta gela orokorrean, ongi konpontzen direla dio Astrain tutoreak: “Hasieran uste genuen ikasleek baztertu egingo zituztela EKTn daudenak, baina ez da hala izan. Primeran moldatzen dira, *makarrillaren* rola hartu dute beren gain, eta besteek ez dituzte baztertzen”.

Hezitzaile gipuzkoarren ustez ere, gela orokorraren eta berezien arteko orekan datza arrakasta. “Normalean –argitu du Aranburuk–, adinean aurrera doala zailagoa izaten da, DBHn gainera arlo akademikoak indar handia hartzen duelako eta ordu asko pasa behar dituzte beharbada ulertzen ez dituzten gauzak entzuten. Horregatik, batzuetan eta batzuetan liberazioa ere izaten da gela itxietara joatea, lagunak errazago egin ditzaketelako, adin horietan inportantea baita besteekiko berdintasunak sentitzea eta gauzak konpartitzea. 16 urte bete arte itxaron gabe, kasuaren arabera 14 urterekin aukera egon beharko luke gela berezietara joateko, haur hauek lasaiago bizi daitezen”.

Beti ez dela integrazioa lortzen ohartarazi dute, errealitatea ez dela ideala, baina garbi dute hirurek: erdua ona da, orain arteko onena, eta hau da bidea. Denek ikasten dute, heziketa premia bereziak dituenak, baina baita ikaskideek ere, balore asko barneratzen dituztelako (errespetua, elkarlana...) eta besteen ezberdintasunak onartzeak norberaren ezberdintasunak onartzen laguntzen duelako. Aniztasuna lantzen den eskoletan, klaustroan eta gelan benetako inportantzia ematen bazaio aniztasunari, emaitzak ikusten direla berretsi digute hezitzaileek. ■



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

ANE ABLANEDO LARRION

«Gure naturarekin adiskidetuko gaituen haziera behar da haurrentzat»

Beste mundu bat posible da, baina horretarako ezinbestekoa da heziketa moldeak aldatzea.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco



“Kultura gure animaliatasunaren ukazioan eraiki izanetik datoz gure gizarte honen gaitzetako asko”.

Gaurko heziketa moldeak zalantzan jartzen dituen bi ikastaroren gidaria zara: bat maisu-maistrei zuzendua eta bestea haur psikologiari buruzkoa, gurasoentzat.

UEUk apustua egin du bi ikastaro hauen alde eta jendea oso ongi ari da erantzuten. Hainbat aldiz egin ditugu eta datozen asteotan berriz jarriko ditugu abian Eibar eta Iruñean. Hik Hasi elkartearen topaketetan ere egongo

gara uztailean. Sumatzen duguna da jendea irrikaz dagoela klabe ezberdinak izateko. Giza garapenaren gakoak zeintzuk diren jakiteko, alegia.

Nola iritsi zinen alor honetara?

Euskal Filologia ikasi nuen euskararekin eta Euskal Herriarekin oso motibatuta eta kezkatuta egon naizelako txikitatik. Gero, psikolo-



gia eta pedagogiarekiko zaletasuna ere piztu zitzaidan eta Espainiako Terapia Reichiarrean psikoterapeuta izateko formazioa jaso nuen. Hasieran ez nion filologiatik psikologiarako jauzi honi zentzu handirik aurkitu, baina orain konturatu naiz ez daudela hain urruti. Nik hizkuntza, literatura eta psikologia maite ditut, oso gizakiarenak diren gauzak, hirurak ere. Gizakia ulertzea da gustatzen zaidana

A ereduak irakaslea zara Barañaingo institutu publikoan. Zer moduz?

Profesionalki aberasgarriagoa zait hizkuntza berez dakitenei sakontzen laguntzea, baina A ereduak beste gauza erakargarri batzuk ere baditu. Euskara ikasgai maria bezala hartzen denez, inork ez dizu emaitzarik eskatzen eta nahi duzuna egin dezakezu ikasleekin, horrek eduki dezakeen alde on guztiarekin. Ez zaude beste ikasgai askotan bezala programaren hain mende eta pedagogikoki ere oso bestelakoa izan zaitezke. Oso ikasle jatorrak ditut eta ikaragarri polita zait euskararekin nola motibatzen diren ikustea. Nafarrak izan arren, ez

NORTASUN AGIRIA

Ane Ablanedo Larrion (Iruñea, 1973ko maiatzak 18). Psikoterapian eta neurosiaren prebentzioan aditua. Bigarren Hezkuntzako euskara eta literatura irakaslea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzailea, idazlea eta politikazalea, besteak beste. UEUren eskutik Hezkuntza sistema alternatiboak eta Haur psikologia ikastaro arrakastatsuetako arduraduna da.

dute euren burua euskalduntzat, espainoltzat baizik, eta arraro ere egiten zaie batzuei ni nafarra izanda euskalduna izatea, pentsa... Haiei gure erreferentzia polita transmititzea da nire helburua, gure hizkuntza, kultura eta identitaterako sarbidea ematea.

Euskaldun eta erdaldunak elkarrekin bizi gara, baina elkarri bizkar emanda.

Euskaldun eta erdaldun baino, euskaldunak eta espainolak/frantsesak. Herri menderatua gara eta herri menderatu guztietan gertatzen

da hau. Orain gurean, menderakuntzari “aniztasuna” esaten zaio. Okupazio erregimen baten mende bizi den herria da gurea eta gatazkaren planteamendu okerra egiten denez, ez gara egoera ongi kudeatzen ari. Herri kolonizatuen gaitza da menderakuntza egoera ez ikustea. Konplexuak ditugu, menderatzailearen onespeneraren bilaketa etengabea... Herri bezala psikologikoki hor azpian eragiten duen sindromearen funtzionamendua ikertzea asko interesatzen zait. Beste mendekotasun egoera askotan ere ikusten da gaitz hau, tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen kasuan, esaterako: mendekoek ahazten dute mendeko direla eta normalizat hartzen dute euren egoera. Mendekotasuna patologikoa da. Indarra duzu mendean zaituen horrengandik askatzeko edo ez. Baina ez da aukera bat.

Neurosiaren prebentzioan ari zara buru-belarri. Zer da neurosia?

Ez dugu nahasi behar normaltasuna eta osasuna. Normala dena media estatistikoa da, baina gure normaltasun horrek hutsuneak ditu. Dena ongi doa, bai, ongi joateari uzten dion arte. Hor daude depresioak, antsietatea, suizidioak, maltzurkeria, jazarpena... Gure normaltasun hori da neurosia. Mendebaldeko gizarteak gaixorik dago. Bizitzarekiko satisfakzio falta ikaragarria dago, “zoriontasun” falta ikaragarria. Detaile bat da baina harrituko zituzke, adibidez, zein txikia den botikarik hartu gabe lo egiteko gai den jende kopurua.

Nola iritsi gara egoera honetara?

Erantzunaren bila halabeharrez jo beharra dago haurtzarora. Gizakiok, beste edozein animalia bezala, izugarritzko potentzialtasunarekin etortzen gara mundura, garapen oso baterako eta osasunerako gaitasunarekin, baina heziketarekin egiten dugu topo, zenbait interesen arabera pertsona modelatzeko funtzioa duena. Uste da umeak ez dakiela zer nahi edo behar duen eta kanpotik irakatsi behar zaiola heldutasunera egin behar duen bidea. Eta ez da horrela. Edozein izakik dakar berarekin izaki heldu bezala garatzeko jakinduria. Beharrak zein dituen jakiteko eta horiek kudeatzeko eta eskatzeko gaitasuna. Nola da posible pentsatzea ume bati irakatsi behar zaiola lo egiten, edo jaten, gauza instintiboak baldin badira? Guk egin behar duguna da enpatia garatu, haurra sentitu eta behar duen hori eman. Ez dugu naturarengan aski konfiantzarik, gure heziketaren kume garelako eta hortaz gure naturatik aspaldi deskonektatu ginelako.

Laztantea

“Gurasoen presentzia afektiboa funtsezkoa da haurtzaroen. Hori da umeak daukan modu bakarra jakiteko maite duzun edo ez. Ume bat ez baduzu asko ukitzen, besotan hartzen, laztantzen, maitasun ukigairik ez badiozu helarazten berak ezin du jakin maite duzunik. Haurrekin egon beharra dago, jolastu, hitz egin, bizi... Gainera haur eta gazteekin egotea oparia da, haur bat hazten laguntzea ikaragarria da”.

Pertsona otzanak

“Inauste, moldatze, hezitze edo fabrikatze prozesu horretan haur bati eragiten zaion mina zuzenean proporzionala zaio sistemak horri ateratzen dion etekinari. Zenbat eta muga gehiago jarri haur bati bere garapen potentzial horretan, orduan eta indartsuagoa ateratzen da sistema, pertsona otzanak egiten ari duelako”.

Garapen psikoafektiboaren prozesuan zaindu beharreko hainbat etapa delikatu dago. Etapa bat ase dagoenean, berez, bizitzaren bulkadak berak eramango du hurrengora, kanpotik ezer behartu gabe. Etapa bakoitzean heldutasuneranzko lorpen batzuetarako potentziala dago. Fase horretatik pasatzen bagara ase gabe edo erritmoa beharturik, ez dira horiek erdietsiko.

Badago bereziki delikatu den faseren bat?

Gure espeziean, burmuinaren garapenagatik oso heldugabeak jaiotzen gara. Itxoingo bagenu umetokian, garuna erabat garatu arte, haurra ez litzateke pasako amaren pelbisetik. Hau dela eta, gestazio moduko bat behar dugu kanpoan, ia-ia urtebetekoa. Oso zaindu beharreko unea da, oso delikatu, non klabeak haurdunaldiko berak diren. Lehenbiziko sei hilabeteetan, batez ere, umea ez da sentitzen amarengandik bereizita, haren luzapen moduko bat baizik. Hor, bereizketa luzeak eta goiztiarrak, larriak izan daitezke. Garrantzitsua da ezagutzea zer den une bakoitzean haur bati eska dakiokiena eta zer ez, nahiz eta naturak berak ematen dizkigun arrastoei arreta jarrita, ez genukeen inork hau gogoratzetik behar. Izan ere, haurra amarengandik bereizteko prest balego, naturak ibiltzeko gaitasuna emanen ziokeen. Eta ez dio ematen urtebete-edo egiten duen arte. Amari itsatsita egon behar duelako. Umeak haur eskolara eramatea lehen sei hilabeteetan, adibidez, ez da batere gauza ona.

Baina askotan beste erremediorik ez dago, amak lanera itzuli behar badu.

Gauzak egiten ditugu ahal dugun hobekien eta badira lanera itzuli nahi edo behar duten amak eta horregatik ez dute zertan gaizki sentitu behar. Baina une horretan haurraren unearen nolakotasuna ongi ezagutzen badugu, haurrari kalte egingo ez dion irtenbidea bila daiteke, ama ere kontuan izango duena, noski.

Haur eskoletan delegatzen ari gara haurren zaintza?

Ni harritzen nauena da edozein estatutan, talde aurrerakoienean ere ez dutela hori zailtzen. Eskakizun iraultzaileena da haur eskolak denentzat izan daitezela, nahiz eta prebentzioaren mesedetan sistema bezala ez genukeen haur eskolarik behar, amatasun baxa luzeagoak baizik. Osasun integralaren prebentzioak, gainera, oso emaitza ona du ekonomikoki, hori gabe gerora sortzen diren gaitzek gastu handiak eragiten dituztelako. Europa iparraldean bestela egiten dute eta sozialki aitortu beharko genuke umeak modu

ANE ABLANEDO LARRION

naturalagoan hazita zer lan profilaktikoa egin daitekeen.

Zein da etapa hauek ez errespetatzearen ondorio nagusia?

Haurren garapen-erritmo eta prozesua bortxatzen denean, haurra korazatu egiten da. Askotan goizegi eta bortitzegi. Koraza hori izan daiteke oso gogorra edo malguagoa, baina, edozein modutan ere, haren esklabo bihurtzen zara. Hori da karakterra, gurekin atsegin izan ez den sistema horretatik defendatzeko sortzen duguna. Hortik dator neurosia. Edo gauza larriagoak.

Eta hori guztioi gertatzen zaigu?

Bai. Emakume batek erabakitzen duenean haurra izatea, bere senarekiko kontaktua lurperatuta eduki dezakeenez, bere amatasunerako gaitasunean ez du konfiantza handirik, eta horri segitu baino, nahiago du profesionalei galdetu. Ama horri lagundu beharko litzaioke bere ugaztun sena aurkitzen, horixe izango baitu bere kumea nola hazi jakiteko modurik egiaena. Haurrak hezi beharrean hazi egin beharko genituzke, gainerako ugaztunek egiten duten bezala. Ama batek haurra negarrez sumatzen badu, instintiboki besoetan hartzeko gogoia sentituko du. Eta

Eskola jazarpena

“Haurrenganako gure harremanetan boterekeria handia dago. Ume bat ezin da errebelatu aita edo amaren aurka. Haien beharra duelako. Etsipen hori barnean gelditzen denean amorrua sortzen zaio eta bere berdinekin errepikatuko du eredua. Jotzen duen ume bat, joa izan dena bezain biktima da”.

ez badu egiten, norbaitek hori ez dela egin behar esan diolako izango da. Gizarte beza-la esango nuke oso gauza nabarmena dela gure lehen fase hori, ahotasunarena alegia, asebetterik ez izatea. Sozialki ikusten den zerbait da. Zulo handia daukagu hor. Gero helduaroan azaleratzen diren mendekotasun arazo askok hortxe dute jatorria. Drogak, edaria, kontsumismoa... Ume baten erregulazio energetikoaren bidea da xurgatzea, eta gainera horri lotutako lorpen psikologiko asko dago, mundua atsegin dela sentitzea eta harenganako konfiantza izatea adibidez. Gauza ona litzateke sozialki bermatzea amaren titia nahi duen guztietan eskura eduki ahal izango duela, gutxienez lehen urtean. Batzuek uste dute ume bati titia hartzen uzten badiozu nahi duen bezain luze, hor geldituko dela finkatuta, baina kontrakoa da. Asegabetasuna da etapa konkretu bati finkatuta gelditzea dakarrena. OMEk gomendatzen du sei hilabete soilik titiarekin eta bi urtera arte, eskura.

Haurrenganako gure harremanak askotan bortitzak direla diozu, zergatik?

Bere naturaren kontrako eskakizunak jartzen dizkio etengabe haurrari gure gizarteak, honen agente diren familia eta eskolaren

**AUZO ETA HERRIAK
DONOSTIA INDARTZEN**
Aurrekontu parte-hartzaileak

**Bilera irekiak Alkate eta
Gobernu Taldeko kideekin
herri proposamenei buruz
kontu emateko.**

Bilerak non?

- **Martxoak 17, Parte Zaharra - Erdialdea.** San Telmo Museoa
- **Martxoak 18, Loiola.** Loiola K.E.
- **Martxoak 19, Antigua - Ibaeta.** Lugaritz K.E.
- **Martxoak 20, Egia.** Egia K. E.

Aurkezpen guztiak 19:00etan izango dira.



www.auzoetaherriak.donostia.org

[@DSS_Partaidetza](https://twitter.com/DSS_Partaidetza)



AZKEN HITZA

Hezkuntza propioa

“Gure herria gauza askotan aitzindaria izan da. Pedagogian ere ikastolak izan ziren 60ko hamarkadan berritasunak gurera ekartzen lehenak. Gainera gure tradizioa-gatik eta dugun talde edo tribu kontzientziagatik baditugu ezaugarri batzuk diskurtso honetarako erreskatatu genitzakeenak. Baina biziko bada, gure herriak independentzia behar du bere baliabideak baliatu eta kudeatu ahal izateko. Ez da aukera bat, beharra baizik. Ez dugu erabaki behar garen edo ez. Bagara. Eta bagarelako, askatasuna eta independentzia dagozkigu. Zergatik LOMCEren aurka borrokatu? LOGSE edo LOE hobeak ziren guretzat, ala? Borrokatu hezkuntza sistema propioaren alde, independentziaren alde. Kataluniak krisia aprobetxatu du independentzia beharraren pedagogia egiteko, gure ustezko politikariak Espainiako presidenteari krisia kudeatzen laguntzen saiatzen diren bitartean. Funtzionamendu hori, herri menderatu gaixoen baitan baino ezin da ulertu. Herri honek sekulako gaitasuna eta bizitasuna du, baina ideologia propioaren beharra du eta ez daki politika egiten. Iruditzen zaio politika negoziatzea edo aurkaria liluratzea dela, eta ez da hori. Indar erlazioa da”.



bitartez. Oihu egiten eta asko mugitzen uzten ez duen eskola adibidez, bortitza da haurrekin, eskatzen zaion hori emateko bere naturaren kontrako ahalegin handia egin behar duelako haurrak. Umeak dituen elikadura eta zainketa behar oinarritzkoetz gain, emozionalak eta afektiboak diren beste behar biologikoak ere baditu. Horiek denak kuestionatu ezinak dira, garapen fisikoaz eta psikologikoz ari garelako. Behar horiek ere asetzen ez baditugu bere momentuan, hutsune afektibok agertuko dira eta gero beste modu batez, aunitzetan materialki, konpentsatzen saiatzen gara.

Gizarte neurotikoa bizi gara?

Guk desberdintzen dugu ‘ni’-a, haur batek berez dakarren izateko modu hori, inpronta, eta karakterra. Azken hori neurosia da, zure garapenean sistema bortitzera egokitze osoa beharreko estrategia multzoa baita karakterra. Hau beti da ‘ni’-a baino gutxiago, mugatuago. Beti modu automatikoa eta bertsuan funtzionatu behar izatera garamatza eta hori gure izateko modua dela pentsatzen dugu. Badira, noski, irmoagoak eta malguagoak. Neurosietan ere graduak dauden bezala, eta iristen ahal zara psikopatologia bat edukitzea edo ez. Kliniketan orain artatzen diren patologiak gero eta larriagoak dira, gizaki normalaren profila gero eta gizaki heldugabeagoa baita. Gogorra edo gogortua,

baina oso hauskorra. Prebentzioaren helburua litzateke ‘ni’ sendoa duten nortasunak sortzea, malguak direnak bere funtzionamenduan, gehiegi eta goizegi korazatu behar izan ez dutenak. Helburua ez da arazorik izango ez duten haurrak haztea, pertsona sendoak, erraz apurtuko ez direnak baizik. Autorregulazioa da helburua, ez sozio-erregulazioa. Zure barne taupadari segituz bizi ahal izatea eta ez kanpoko instantziek ezarritako funtzionamendu normatiboaren beharretara egokituegi.

Gaztetasuna nagusi da gure gizartean.

Bai, eta ustezko autonomia. Gure gizartean ez daramagu ongi besteen beharra izatea. Ez ditugu ongi onartzen haurrak, zaharrak, elbarriak... Paradoxa bat da, baina mendeko izateak benetan zentzua duen garaian, hau da, lehenengo urteetan, berehala presa sartzen diogu pertsonari nolabaiteko autonomia lor dezan eta ez gara konturatzen kontrakoa eragiten ari garela. Hor dagoela mendekotasun psikologikoen jatorria. Hurrei haurra izateko garaia lapurtzen ari gaitzaizkie. ■



Kalean ere txotx egiteko aukera badago

Legorretan (Gipuzkoa) ezagun da Aulia sagardotegia. Herrian bertan, kale izkina batean topatuko dugu, etxe bateko azpiko solairuan. Urteak daramatza jendeari irekita, nahiz eta orain hiru bat urte jabez aldatu zen. Ikaztegietak (Gipuzkoa) Begiristain sagardotegiko Iñaki Begiristain semeak erosi zuen, lehendik 37 urtez Auliakoek aurrera atera zutena.

| ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA |

EZ DA OHIKOENA kaleko sagardotegia. Normalean mendi inguruan, edo behintzat herriatik aparte xamar irudikatzen ditugu; baina ez da Auliaren kasua, herrian bertan dago eta hori du berezitasun. Kaleko betiko sagardotegia da, eta abantaila batzuk baditu. Legorretarrek ez daukate autoa hartu beharrik bertaratzeko. Gainera, tren estaziotik bost bat minutura dago oinez, eta beraz, inguruko herrietatik joateko aukera paregabea da. Goierri, bestalde, ez dago Astigarraga-Hernani inguruan dagoen konpetentziarik, eta alde horretatik errazagoa ere bada. Inguru hauetan Ikaztegietakoa, Legorretakoa, Ataungoa eta Zeraingo biak, bost sagardotegi daude denera. Hori horrela, herrian bertan egoteak bentaja handi xamarra ematen dio Auliari. Goierri aldeko jendea ibiltzen da Legorretako sagardotegian, baina Zumarraga, Urretxu, Legazpi, Oñati, Arrasate ingurukoek ere hara gerturatzeko joera dute. Aste-

buruetan pixka bat gehiago zabaltzen da abanikoa eta Agurain, Gasteiz inguruetatik eta Nafarroatik ere jendea etortzen zaiela azaldu du Begiristainek. Trenez hurbiltzen dira Legazpitik hasi eta Legorretaraino dauden herrietakoak. Orain, baina, gaueko azken trena Zumarragaraino bakarrik iristen da, eta Legazpiko bizilagunei konponbidea eman nahian autobusa jarri dute: herriz herri, Legazpi, Zumarraga-Urretxu, Ormaiztegi, Lazkao, Beasain eta Ordizia igarotzen ditu, Legorretaraino. Erreserba egin beharra dago aurretik.

Sagardotegia kale-kalean badago, non dituzue sagastiak? Horra Iñaki Begiristain egin diogun galdera. Ikaztegietak sagardotegi inguruan dauzkaten sagarrondoetatik bildutako fruitua izaten omen dute parte batean Auliako kupeletan. Horrez gain, Begiristainen ama Alegiakoa da, eta bertan daukaten baserriko terrenoak sagastiz beteta daukate, baita jabearen bikotekidearen jaioterriko zenbait lur ere, Idiazabalen.

Uzta oparoa den urteetan, Goierriko sagarren nahasketatik lortutako muztioz betetzen dituzte kupelak, lehengo urtean kasu. Gainera, azpimarratu du, eskualde horretan sagardotegi gutxiago dagoenez, errazagoa da baserritarrei fruitua erostea. Aurtengoan, baina, bertako uzta txikia izan dela-eta Galiziatik, Frantziatik eta Alemaniatik ere ekarri dute.

Mokoa, Txalaka, Patzuola...

Begiristaindarren sagastietan Mokoa, Txalaka, Patzuola, Urdin sagarra, Urtebi handia, Urtebi txikia... barietateak daukate, besteak beste, eta sagar mota horietatik lortutako muztioarekin jolasten dute nahasketak

Herrian bertan

Aulia sagardotegia (telefonoa 943 80 60 66) bezala herrian bertan dauden sagardotegiak:

- Alberro (Hernani, Gipuzkoa)
943 55 00 19
- Olagi (Alzaga, Gipuzkoa) 943 887 726
- Rezola (Astigarraga, Gipuzkoa)
943 552 720
- Ipintza (Astigarraga, Gipuzkoa)
688 811 724
- Txalaka (Irun, Gipuzkoa) 688 875 054



Inguru hauetan ikaztegietakoa, Legorretakoa, Ataungoa eta Zeraingo biak, bost sagardotegi daude denera. Irudian, Legorretan herrian bertan dagoena: Aulia.

egiterako garaian. Ehun mila bat litro sagardo egiten dituzte urtero Aulian.

Sagardozelearen iritziz, ideala izango litzateke nahi beste kilo erosi ahal izatea sagar barietate bakoitzetik, lortu nahi den muztioaren arabera. Hori, baina, oso zaila omen da, lehenik eta behin askotan bertako baserritarrek ere ez baitute jakiten zein barietate dauzkaten beren sagastietan, sagar gazia den, geza, mikatza... Horrek eraman ditu muztioaren analitikaren araberrako aldaketak eta nahasketak egitera, batez ere hemengo sagarrarekin. Sagar partida bakoitzaren azterketa egiten dute, beste zenbait daturen artean zenbateko pH-a duen neurtuz, horren arabera jakiten baitute joaldi horretan sartu den sagar multzoak zein ezaugarri dauzkan. Lortu nahi den muztioaren arabera, hurrengo sagar partidetan eskuratutako zukuarekin nahasketak egiten joaten dira. Atzeritik dakarten sagra-

rrarekin ez dute horrenbesteko arazorik izaten, bai baitakite hornitzaile bakoitzak darabilen sagarraren muztioak zein ezaugarri dauzkan, gutxi gorabehera. Nahasketak egiteko, bada, kanpoko sagarra egokia izaten dela dio, bertako fruituarekin ateratako muztioari zer gehitu edo zer ez jakiten dutelako.

Sagardo denboraldi goiztiarra

Auliak badu ohikoa ez den beste berezitasun bat ere: sagardo denboraldia goizago hasten du, abenduaren 13an, eta maiatzaren bukaerara arte luzatu. Irekiera goiztiar horrek sagardoak beharrezkoa duen prozesu guztia goizago egitera behartzen ditu. Lehengo jabeek hala egiten zutela adierazi dio kazetariari Iñaki Begiristainek, eta eurek ere ohitura hori jarraitu nahi izan dutela, gehienbat bezeroak horrela ezagutzen baitu sagardotegia. Abenduan oraindik ere txotxeko sagardoa berri xamarra izaten den arren, jendeak ohitura gordetzea eskertzen omen du.

Menuari dagokionez, iaztik bakailaoa frijitu-ta eta piperrekin jarri orde, saltsan, pil-pilean prestatzen dute. Bezeroak lehengo urtean gustura jan zutela-eta, aurren modu berean jarraitzea erabaki dute. Bestalde, Auliaren ezaugarrietako bat txuleta dela dio Begiristainek, horregatik darabilte erretegieta erabiltzen den haragia, Alemaniakoa.

Oraindik sagardotegiari neurria hartzen ari direla esan digu, nahiz eta familiatik datorkien ofizioa izan, toleara eta kupelak ezagutu beharra dagoela. Baina aurtengo sagardoarekin gustura daude eta datoren urteari begira agian Gorenak taldean sartuko dela azaldu digu sagardozeleak. ■



Dantzaz konpainia
KAMELEOIA
Martxoak **21**, ostirala
21,30etan
Sarrera **10€**
Gazte ordua **3€**



Bekarik ez nuela jakinda, urtea beste era batera antolatuko nukeen

Garazi Basterretxea Barea naiz, Erromukoa (Getxo, Bizkaia), eta 24 urte ditut. Euskal Filologian lizentziatua, gaur irakaskuntzako masterra egiten ari naiz. Karrera egiten ari nintzela beka jasotzen nuen Eusko Jaurlaritzatik, baina aurtengoan ukatu egin didate 2.000 euro inguruko diru-sarrera.



ORAIN BI URTE bukatu nuen karrera, eta urte haietan Eusko Jaurlaritzak urtero banatzen dituen diru-laguntzetako bat jasotzen nuen. Gurasoak bananduta dauzkat, eta gure kasuan amaren diru-sarrera soilik hartzen da kontuan; beraz, irizpideen arabera gutxiengo mailara ailegatzen ez garenez ematen zidaten beka. Horrez gain, nire espedienteko notak begiratzen zituzten, 6tik gorako batez bestekoa izatea baita beste irizpideetako bat. Puntu horrekin ere arazorik ez, eta urtero jasotzen nuen 3.000 euro inguruko laguntza.

Aurten, Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza masterra egiten ari naiz, baina arazoak sortu zaizkit beka jasoko ez dudala esan didatenean, orain hiru bat aste. Zergatik, eta lehengo urtean EHUko gradu ondoko batean matrikulatzeagatik; eta ez gustuz, beka bat emateko baldintzetan sartzeko baizik. Ikerketarako beka bat eskatu nuen lehengo urtean, baina horretarako masterren batean kreditu minimo batzuetan matrikulatuta egon beharra neukala esan zidaten. Beti gustatu izan zait literatura, eta Gasteizen badaude gai horretara zuzendutako ikasketak; beraz, gradu ondoko horretan hiru irakasgai hartu nituen, gutxiengo hori betetzeko. Horrela, ikerketa beka egiten ari nintzen bitartean pixkanaka ikasketa horiek egiteko aukera edukiko nuen. Ikerketarako diru-laguntzarik ez zidaten eman, ordea, eta Global Training mugikortasun beka eskatu nuen ondoren: lanera atzerrira joan ahal izateko laguntza. Liverpooletik pasatu nuen urte erdi euskara kla-

seak ematen. Bitarte horretan, noski, ezin izan nituen literaturako gradu ondokoan matrikulatutako irakasgaiak burutu.

2013-2014 ikasturtean irakaskuntzarako masterrean matrikulatu naiz. Eusko Jaurlaritzari beka eskatu diot, eta ukatu egin didate. Lehen esan bezala, espediente begiratzeko, EHUko matrikulatutako azken kurtsoa. Eta ikusi dutenean lehengo urtean matrikulatutako hiru irakasgaietan 0 dudala, atzera bota didate diru-laguntza. Unibertsitateko idazkaritzarekin hitz egin dut, erreklamazio idatzi bat aurkeztu dut, argudiatuz ez nintzela kapritxo matrikulatu, beharzagatik baizik, eta ikerketa beka eman ez zidatenez atzerrira joan nintzela. Lanean aritu naizela. Lizentziaturako batez bestekoa begiratu beharko lidaketela. Baina legalki ez omen daukat gauza handirik egiterik.

Ez dut nire ikasketak utzi beharrik izango, lehengo urtean lanean irabazitako diru bat baitaukat gordeta. Baina urtea dezentetutuko zait. Arratsaldero dauzkat klaseak gainera, eta horrek lan txikiak bilatzea zailtzen du, nahiz eta gauzatxoren bat egiten ari naizen. Ni ari naiz nire ikasketak ordaintzen, eta zorionez lehengo urtean lan egindakoarekin moldatuko naiz, baina ezin izan banu? Kurtso erdia pasata jakiten dugu diru-laguntzarik izango dugun ala ez, eta hori aldatu beharra dago. Beka eman- go ez zidatela jakin izan banu, agian urtea beste modu batera antolatuko nukeen. ■







DANI BLANCO

Garbiñe Biurrun Mancisidor



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Bagoaz

ORAIN BI HILABETE orrialde honetan idatzi nuen artikulua izenburu hau zuen: ETArekin aurka hobeto bizi ote ginen bada? Eta haxe esan ere: “Herri honek hausnarketa sakona eskatu dio ezker abertzale tradizionalari; desagertzea exijitu dio ETARI eta indarkeria mota guztiakin bukatzea –baita Estatuarena ere– ezinbestekotzat jo du etorkizun hori eraiki ahal izateko”.

Artikulu hartan “herria” aipatzen nuen. Orain gehiago zehaztuko dut: 2013ko maiatzean Lokarrik eta Bake Bideak sustatutako Foro Sozialak Bake prozesua bultzatzeko gomendioak eman zituen. Prozesu aberasgarria jarraitu zen: nazioarteko 12 adituren ekarpena eta 500 proposamen zehatz baino gehiago jaso ziren. Abiapuntua eta helmuga hauek dira: bake prozesu sendoaren erronka nagusiei heltzeko oinarritzko adostasunak lortzea arlo desberdinetan. Gomendio horiek, laburrean, hauek direlarik: ETArekin desarmea eta egitura militarren desagetzea; presoan eta iheslarien itzultzea erraztea. Giza Eskubideak bultzatu eta bermatzea; egia eta memoria babestea iraganari zintzotasunez aurre egiteko, biktima guztiak aintzat hartuz eta egia, justizia eta ordaintza eskubideak errespetatuz. Hau guztia etorkizuneko elkarbizitzaren oinarriak finkatzeko.

Ez naiz, ez, ahaztu bi arlo zehatz horietan Espainiako Gobernuari eskatu zitzaionaz. Baina Gobernua mututu da; dagoeneko ETA ez omen da arazoa berarentzat. Aldiz, ETArekin presentzia PPrentzat arazo bihurtu daiteke maiatzeko hauteskundeetarako lehian

Begi bistakoa da gizarteak eta Foro Sozialak egindako planteamenduak erroztzen ari direla. Alde batetik, 2013ko abenduaren 28an EPPK-k egindako Adierazpenean gomendio horiek aintzat hartzeko modukoak direla onartu eta hainbat erabaki jakinarazi zituen. Bestalde, ETAK berak egindako azkeneko Adierazpenetan antzekoa esan du eta, dakigunez, desarmatzeko bidea abiatu du.

Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herriko hainbat erakunde Foro Sozialaren gomendioen bidetik doaz, beste ekimen ofizialak jarraituz.

Lehen gomendia, esan bezala, ETARI luzatu eta exijitu zitzaion: desarmatze eta desagete prozesu bat diseinatu, garatu eta bururaino eramatea. Horretan ari dela esan digu publikoki. Nazioarteko Egiaztatzaille Batzordeak horrela berretsi du –ezagutu ditugun zailtasun eta emaitza eskasekin– eta azkeneneko Adierazpenean –otsailaren 29an– desarmatzeko prozesua bururaino eramateko asmoa duela jakinarazi du, eta “armak, leherkariak eta gailuak erabilera operatibotik kanpo” daudela bermatu. Herri honi zor zaion pauso ezinbestekoa da hori. Gainera, itxura denez, Estatuaren aldetik inolako erraztasun operatiborik emango ez denez, lehenbailehen burutzea izango da erabakirik praktikoa eta eraginkorra. Ea, behingoz, ETAK gizarte honek eskatutakoari “zintzotasunez” erantzuten dion.

Presoen itzulera ere ez da arazo txikia. EPPK ere kontzientea da horretaz. Argi dago presoek aurrerapausoa egin dutela gomendioak jarraituz: lege baliabideak erabiltzea, egindako mina aitortuz. Orain banakako eskaerak bideratuko dituzte, egoera larrienetatik hasita: hona hemen beste erantzun positiboa bakerako bidean. Espero dut bideratuko dituzten eskaerak zentzuzkoak eta “praktikoak” izatea.

Ez naiz, ez, ahaztu bi arlo zehatz horietan Espainiako Gobernuari eskatu zitzaionaz. Baina Gobernua mututu da; dagoeneko ETA ez omen da arazo berarentzat –aldiz, ETArekin presentzia Alderdi Popularrarentzat arazo bihurtu daiteke maiatzeko hauteskundeetarako lehian–. Gobernuarengandik oztupoa besterik ez datorkigu, desarmearen prozesurako batez ere. Eta laster izango dute presoan eskaerei erantzuteko aukera; orduan ikusiko da bere benetako asmoa, aitzakiarik gabe.

Halere, *Bagoaz!* Ez da erraza, baina hementxe dugu denon artean jorratu beharreko bidea. ■





Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA

Makarrak

TXILEN BIZI NINTZENEAN eta lagunartean makarra hitza erabiltzen nuenean sarri galdetzen zidaten esanahiaz. Egiaren alde esan dezadan aldiro definizio ezberdin eta total bat ematen nuela, eta honetaz jabeturik, ezin adieraziaren arantzatxoa haziz joan zitzaidala. Badira hitz batzuk definitzen zail zaizkidanak. *Makarra* da horietako bat. *Traste* da beste bat. *Asunto* litzateke hirugarren bat. Aspalditik errotuak ditudan hitzak dira, umetan grabatuak, uko egin nahi ez die-danak. Sentipen hau aldean hartuta, behingoan, hitzaren etimologiara jo dut. RAEren arabera *macarra*: (Del cat. *macarró*, y este del fr. *maquereau*). Elhuyarreko frantses-euskara itzultzaileak *maquereau*-ri erantzuten dio: berdela. Frantzia, Parisen bederen, ez omen diote hemen ezagutzen diogun esanahirik (!) ematen *maquereau*-ri. Bestalde, gaztelania-euskara hiztegian *macarra* bilatuta makarro aurkitzeak bihotza ukitu didan arren (euskaraz *macarra*-ri makarro dei die-zaiokegula, alegia!), natorren RAEk ematen dituen hiru sarreratar: 1. adj. *Dicho de una persona: Agresiva, achulada*. 2. adj. *Vulgar, de mal gusto*. 3. m. *rufián (hombre que trafica con mujeres públicas)*.

Nire unibertsoko makarrek ez dute horien antzik. Urrun geratzen dira niretik proxenetak, *txuloputak* eta bestelako jendilaje adoregabea. Gure etxean makarra beti izan da aitaren ahotan ibili den hitza kaleari eta gauari lotutako norbait definitzeko. “Kaleko makarrekin” ez elkartzea izan zitekeen aitaren gomen-dioa. Nolanahi dela, ez zen mehatxu seinale. Makarra hitzak berandu baino lehen esanahi sinpatikoa hartu zuen etxe barruan, eta aitaren ahotan edozer zenez makarra (seme-alaben zaintzarako gaindosi erdi-umorezkoak jota), hala,


txisterako arrazoi bihurtu zen, neurri batean. Edoze-lan ere, ezkutuan makarratzat nituenenganako mires-pena lantzen nuen ordurako. Nire nerabazarotik begirata makarra bat legea hausteko gai zen, auto-ritate ilunik ez zuen onartzen eta jendartetik aparte-ko izaki ilun brillantea iruditzen zitzaidan. Makarra-ren estetika ez zen orduan eta ez da gaur erraz adostekoa. Badira heavy makarrak, punki makarrak, poligonoetako makarrak, makarra feministak. 90eko. hamarkadan, punk estetikara lotutako makarra genuen kale bazterrotako iruditegi, baina egun, itxurak ez dit hainbeste inporta. Norbait makarra dela

diot ausardia eta obarioak ditue-lako hiribide nagusitik joan beharrean bere bide propioa urratzeko. Gutxien espero den unean bere jokabide eta estilo inkonformistaz ahoa bete hortz uzten nauelako. Eta barne zolan ideia liberta-rioak itsatsi dituelako eta

haiengatik borrokatzen duelako, esanak esan. Ohartzen naiz defi-nizioaren zabalegiak, baina aldi berean, ohartzen naiz hainbat hitz esanahiez zehazten ez jakin arren, eder direla beren zehaztu ezinean, guretzat esanahi gordea baldin badute. Eta niretzat makar-rak badu zerbaite gordetik. Gogorapen bat da, umetan han-ditan izan nahi nuen hari traizio ez egitera bultzatu nahi nauena. Ume hari zituen ametsak ez lapurtzeko oroigarri bat. Lagun-tzen dit, gainera, miresten dituda-nak lokalizatzen, identifikatzen eta iruditegi propio baten bidean ernai mantentzen. Hortik zehar zabil-tzaten makarrak! Nire hiztegian, nire begi zein barrenetan itsasargi zaituztet eta miresgarri. Barkatu-ko didazue zuen esentzia era-bat ezin harrapatua.

N o r k

jakin, harrapa-tu ezin horretan bertan datza, agian, zuen askatasunaren lehen hazia. ■



Antton Olariaga



Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Galderak

BOTEREA GALDU ZUTENEAN, 1936an, 3.000-4.000 lagun garbitu zituzten bide bazterretan, gerra-frontea urruti zegoen arren. 1978an, ezarri nahi zuten erregimena kili-kolo zitekeela uste izan zutenean, German Rodriguez hil eta Sanferminak leherrarazi zituzten. Zer egiteko prest egongo dira, 2014an edo 2015ean, erregimena hondora joan daitekeela susmatzen badute?

Zer zentzu demokratiko daukate bide bazterreko garbiketa masibo hori eragin zutenen ondorengo politikariek, 78 urteotan, eta gaur egun ere, epaiz kanpoko fusilamendu horiek kondentatzen ez dituztenek? Gai dira joko demokratiko, esan dezagun, estandar baterako?

Nafarroa ez zen izan behar nafarrek nahi zutena, urte luzeetan entzun dugun *mantra* ezagunaren arabera? Orduan, zergatik ebatsi zaizkigu erabakiak oro, Foru Hobekuntzaren bozketatik hasita? Estatu arrazoia arrazoi demokrati-koaren gaineratik dago? Hala gertatzen denean erregimen batean, zer izen dauka, nola deitzen zaio? Tutorretza behar dugun susmagarriak, eroak, adingabeak... gara?

Roldan eta Urralbururekin ustelkeriaren marka guztiak apurtu zituen eta ordutik erregeneraziorik ezagutu ez duen PSNk, erregimenak bahituta egotea-ri uzten ahal dio?

Legezko partidu guztiak dira legezkoak, edo batzuk besteak baino legezkoagoak dira?

Zergatik auzipetu ditu CAMeko zuzendaritzakoak Auzitegi Gorenak, eta delitu-zantzu berdin-berdinak edukita, bakean utzi CANekoak?

Zer nolako elkarbizitza sor liteke herrialdeko bigarren indarra, oposizioko lehena, *napartheidera* kondentatzen duen praktika politikotik? Estigmatizazioa eta bazterkeria sistematikoa eta kultura autoktonoa kolonialismoaren moldeez hankapetzea izan daitezke elkarbizitzaren oinarriak?

Zergatik errepikatu behar du Ayerdik Bilduk balizko zentsura mozio baten alde bozkatzea eta Bildurekin hitzarmen bat egitea ez dela gauza bera? Zergatik, berak ere badaki mundu guztiak badakiela hori? Zergatik gerta daiteke Pernandoren egia bat argumentu politikoaren mailara igo behar izatea?

Legezko partidu guztiak dira legezkoak, edo batzuk besteak baino legezkoagoak dira? Batzuk besteak baino legezkoagoak badira, hartuko dituzte anomalia hori konpontzeko neurriak? Nork hartuko ditu? Eta zer neurri izango da? Ilegalizazioa?

Errotarri lako ostia gehiegi irentsarazi dizkigute, oso aspalditik, “normalidade demokratikoa” horixe delakoan, eta salbuespena beharko lukeena ohiko bihurtu da. Horregatik, benetan, demokrazia, edo demokrazia-itxura bat, bederen, posible al da Nafarroan dagoeneko? ■



DANI BLANCO



Amets Arzallus



BERTSOLARIA

Nomadak

MAITE DITUT nomadak, ijitoak eta bestelakoak, bizitzaren metafora direlako. Ibilian da beren egoitza bakarra. Bidean bizi dira, askotan, bizibide jakinik gabe, eta erreze- loak sortuz. Baina zein da sortzen duten errezeloa? Zer da lapurtzen diguten hori?

Agian, guk bizitzarako genuen segurtasun bat da osten digutena. Izan ere, nomada batentzat, edo ibilian bizi denarentzat, zer da eta non da herria? Non da herri eta non da deserri ibilian bizi den batentzat? Ez ote dabilta batetik bestera beren iza- tearen garraio? Begitan hartuak ditugu iji-

toak eta nomadak eta ibilian doazenak gure sinesmen bat auzitan jartzen digutela- ko, gure herria, edo nahi bada kokapen geografiko finkoa.

Maite ditut nomadak bizitza bidea dela erakusten digutelako, gure bizi lekua tarte bat baino ez dela, eta tarte hori mapetan koka ote daitekeen, herriek aingurarik behar ote duten, pentsakor uzten nautelako. Maite ditut iji- toak, gure etxea, sartu, dena hankaz gora jarri, eta galderaz betea uzten dutelako. ■





Ixabel Etxeberria

♦ URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

Eskuinera doa

FRANTZIAKO ESTATUKO Herriko Etxeetarako hauteskundeak martxoaren 23an eta 30ean iraganen dira. Hauteskunde hauetan herriko kontseilariak eta auzapezak hautatuko ditugu, baita Herri Elkargoetako ordezkariak ere.

Gobernatzen ari den alderdi sozialistari emaitza onik ez zaio iragartzen. Une honetan 85 hiri gal ditzakeela aipatzen da prentsan. Hau dena, noski, espekulazio hutsa da, baina giro orokorra ikusi eta, hautesleek François Hollanden zigortzeko bidea har lezaketela pentsa daiteke.

Izan ere, gogoratu behar da Hollandek zin egin zuela langabeziaren kopurua txikitzeak lehentasuna zuela. 2013ko abendurako langabezi kopurua jausten hasiko zela agindu zuen eta hau ez da gertatu. Aldiz, egun batzuk lehenago 30 mila milioiko oparia egin zien nagusiei. Baina, zerga txikitze horrekin ez zuen erran nola lortuko zuen diru galtze hori konpentsatzea. Ondorioz, denek ulertu zuten zerga emendatzea etorriko zela 2014ko bukaerarako. Bestalde, Hollandek Estatua sartu du bi gerlatan Afrikan, gerla lasterrak izan behar ziren baina soldaduak han dira, gure zergekin ordaintzen diren gerlatan. Erretretarako kotizazioak 43 urtetara pasa dira. Ez omen da dirurik. Gerlarako bai, orde. Ezkerreko politika honen ezintasuna agerikoa da, eskuzabaltasuna gerlarako geratu da, nagusien eta boretsuen alde, horrek ekartzen du hiritar askorentzat zalantza eta politikan konfiantza galtzea. Oraindik lanean ikusi ez den alderdia gelditzen da saiatzeko. Horrela inkestetan Front Nacional (FN) oso toki onean agertzen zaigu,

bozen %24 lor lezake, hiru hautesleetatik batek eman liezaioke botoa FNi. Zerrendaburuek garrantzi handia izanen dute.

Ez dira berri onak, ezkerrek ez du esperantzarik pizten, bere ametsei uko egin baitio. Ezkerretik abstentzio handia espero da. Eskuinetik proiekturik ez da ageri eta FNa traba da toki askotan, hautagai askok oraindik eskuin muturrarekin aliantzarik ez dute onartzen. Hala ere, Frantzia eskuinera doa!

*Front Nacional (FN)
oso toki onean
agertzen zaigu, %24
lor lezake, hiru
hautesleetatik batek
eman liezaioke botoa*

Ipar Euskal Herrian, mugimendu gutxi gertatuko da, ezkerrek seguru aski ez du lorpen handirik izanen, ez bada Angelun, agian. Ezinbertzean betiko eskuinak lortuko ditu herriak. Abertzaleek bide egiten segituko dute, hautetsi kopurua emendatuko da eta zenbait tokitan gako izanen dira. Udalbiltzan Ipar Euskal Herriko 11 auzapez daude, 50 kontseilari baino gehiago. Kopuru horiek emendatzea da garrantzitsua. Lehen itzulian zerrenda abertzaleak egonen dira herri askotan, abertzaleak beste zerrenda batzuetan. Bigarren itzulian zer eginen den ikusi beharko da, sozialistekin joatea oso zaila dirudi, Hollanden jarrerak eta politikak ikusita. Laster ikusi-ko. ■



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali

«Gure estiloa lantzen duen beste talderik ez dago Euskal Herrian»

Doinu latinoak hainbat estilorekin nahasteak munduan barrena makina bat kontzertu eskaintzeko aukera eman dio Damba taldeari. *Hautsi... Eta izan zaitez zu* (Agorila, 2013) disko berriarekin haien lana Euskal Herrian ezagutaraztea dute erronka.

Kristian Amorena bateria-jotzailearekin izan gara.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

Disko berriaren izenburuari erreparatuta, zer behar dugu hautsi?

Gehienbat mundu aldrebes hau hautsi nahi dugu. Azken urteotan gizarteak hartu duen bidea kolpetik geldiarazi, eta norabidea aldatu. Uste dugu badagoela gauzak bestela egiteko modurik. Egunero medioetan entzuten ditugun basakeria horien kontrako gure oihua da diskoa.

Zuen taldearen berezitasun bat, partaideen jatorri aniztasuna da. Nola ezagutu zenuten elkar eta proiektu honetara batu?

2009an hasi ginen zuzenekoak ematen, baina aurretik pare bat urtez lanean ari-tuak ginen proiektuaren inguruan. Nire ibilbidean ezagututako pertso-nekin proiektu bat eratzea nuen asmoa, musika mota jakin bat zabal-tzeko. Lan horretan Amparanoiako Amparo Sánchezen laguntza izan nuen; harekin produzitu genuen lehen diskoa. Nire ibilbidean toki ugaritako jendea ezagutu dut, eta horregatik aniztasun hori. Hala ere, taldean hainbat aldaketa izan dira, eta orain ia denak euskaldunak gara. Taldekideetako bat kubatarra da, baina gainontzekoak Euskal Herriko hainbat bazterretakoak, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak. Guztira hamar gara, zortzi musikari, teknikaria eta komunikazio ardura-duna.

Eta horrek eragina du zuen estiloan ere. Iturri askotatik edaten duzuela igartzen da.

Gutako bakoitzak bere musika gustuak eta iturriak ditu, eta hortik abiatuta saiatzen gara zerbait bateratua osatzen. Ez da erraza egiten duguna definitzea: baditugu rock munduko eraginak, baina baita musika tradizionalakoak

ere. Ukitu latinoak du diskoak, asko gustatzen zaiguna eta betidanik landu izan duguna, baina estilo asko nahasten ditugu: reggaea, punka, rumba... Oro har, festarako doinu biziak egitea izan da gure asmoa.

Lehenengo diskoa Amparo Sánchezekin ekoi-tzi zenutela eta, Amparanoia omen da zuen talde erreferenteetako bat.

Haien musikaren aberastasuna gustatzen zaigu, baina baita haien abesti eta letren zentzua ere. Bat egiten dugu espiritu horrekin, soiltasuna eta mezu zuzenak gozatzeko planean.

Eta Euskal Herrian, bada zuekin aldera litekeen talderik?

Ezetz esango nuke. Gure esparru musikala dugu, eta ez dugu uste Euskal Herrian bide musikal bera lantzen duen talderik dagoenik. Estilo aldetik ez dugu Esne Beltza edo Emonen gisako musika egiten, oso bestelakoa da. Esne Beltzarekin, esaterako, jo izan dugu, eta gure musika ez da errepikakorra egiten, osagarria baizik.

Heldutasunera iritsi zaretela aipatu duzue. Musikalki zein eboluzio izan da aurreko diskotik hona?

Estilo honetako musika ondo egiteak lan handia eskatzen du, are gehiago horrenbeste musikari batera ari garenean. Taldeko musikariak esperientzia handikoak dira, baina taldeak behar duen forma hartzeko, jo, jo eta jo egin behar da. Zati guztiak behar bezala batzeak denbora eskatzen du. Zentzu horretan hobekuntza handia nabaritu dugu. Azken bi urteotan zenbait aldaketa egin ditugu eta horrek ere lagundu egin digu. Estilo aldetik

“Gure taldeko musikariak esperientzia handikoak dira, baina taldeak behar duen forma hartzeko, jo, jo eta jo egin behar da”



berriz, bide berari eutsi diogu. Zerbait aipatzekotan, egia da pixka bat gehiago landu dugula mundu elektronikoa, kantu fresko eta zuzenak egiteko asmoz.

Aldaketen artean, Estitxu Pinatxo, abeslari berria.

Duela urtebete baino lehenago hasi ginen berarekin lanean. Telecinco telebista-kateko La Voz lehiaketan ikusi zuen Aitziber Estangak [taldeko gitarra eta ahotsa] eta gustatu egin zitzaionez, harekin harremanetan jarri ginen, gure proiektua erakusteko. Gustatu zitzaizkion gure influentziak eta baita gure kanta eta asmoak ere. Indar handiko ahotsa du, eta bi abeslarien arteko kimikak oso ondo funtzionatzen du, zuzenekoetan batez ere.

Beste aldaketa bat hizkuntzarena da. Bigarren disko honetan abestiak euskaraz dira, lehenengoan ez bezala.

Euskaraz abesten dugu, gure musika Euskal Herrian ezagutarazi eta zabaldu nahi dugulako. Asko ibili gara Euskal Herrikan kanpo, eta hemen gure lana erakusteko gogoa genuen disko berriarekin. Lehenengo diskoko abestiak gaztelaniaz ziren abeslaria madrildarra zelako, batez ere. Halere, duela bi urte hasi ginen jada letra hauek lantzen. Hasieran Ele-narekin [aurreko abeslariarekin] saiatu ginen grabatzen, baina asko galtzen zuen espresio aldetik. Ez ginen nahi genuenera heltzen. Hark taldea utzi behar izan zuen azkenean, eta Pinatxorekin errazagoa izan da.

Miren Amurizak jarri dizkie hitzak zuen abestiei. Nahieran idatzi ditu ala gaiak eta gainerakoak aurretik adostu dituzue?

Estitxu Pinatxo (eskuinean) dugu Damba taldeko kide berriena. Ezkerrean, Aitziber Estanga.

Guk aurretik bagenituen zenbait gauza prestatuta, eta neroni aritu naiz Amurizarekin hitz horiek lantzen. Bagenekien zer nahi genuen gutxi gorabehera. Halere, gure ideietatik abiatu arren, askatasun osoa izan du hitzak bere erara moldatzeko.

Diskoan emakumeak duen protagonismoa ere nabarmendu duzue.

Maleruski, Euskal Herrian ez dago talde askorik emakumea protagonista duenik. Gure abestiak bi emakumek abesten dituzte, eta hitzak ere emakume baten begiradatik daude idatzita. Uste dut aurrerantzean hori sustatzeko lan gehiago egin behar genukeela.

Munduan barrena kontzertuak emateko aukera izan duzue. Zer moduzko harrera duzue Euskal Herrikan kanpo?

Egia erran oso harrera ona jaso dugu toki guztietan. Gure musikak duen alaitasuna oso erraz transmititzen da eta ikusleek primeran pasatzen dute. Budapestean jo dugu, Afrika iparraldean, Espainian, Frantzia, Belgikan, Britainia Handian... Berriki, Kubara hiru festibalekara joateko gonbita ere egin digute.

Eta Euskal Herrian, baduzue nahi beste kontzertu eskaintzeko aukera?

Kosta egiten da kontzertuak lotzea, are gehiago azken urteotan. Orain arte harrera ona izan dugu, dena den. Apiril eta maiatzeko hainbat kontzertu ari gara lotzen. Euskal Herrian taldea ezagutzera ematea falta dugu; disko honek datozen hilabeteetan falta zaigun bultzada emango digula espero dugu. ■



«Zorionez, Euskal Herriko arte eszenikoen kalitatea altua da»

dFeria nazioarteko jaialdia zuzendu du urteotan, eta ondo ezagutzen ditu arte eszenikoak. Euskal Herriko zenbait antzerki talderen lanak erakutsi dira aurtengo edizioan ere.

| MYRIAM GARZIA |

Donostiako CNTko idazkari nagusiaren iloba zara. Familian arnastutako askatasun grinak lagundu dizu sorkuntza zaletasunean?

Nire osabarengandik askatasuna ulertzeko modua ikasi nuen. Antzerkizaletasunerantzko lehen urratsak amaren eskutik eman nituen, txiki-txikitik. Bi horiek haziak izan ziren, geroxeago uztartu egin nituen.

26 antzerki eta dantza garaikide konpainia datoz dFeria jaialdira, horietarik hainbat Euskal Herrikoak dira.

Zorionez, arte eszenikoetako sorkuntzaren kalitatea altua da. Ez dira denak kabitzen, baina urtetik urtera oreka aurkitzen saiatzen gara. Esan bezala, kalitatea ez da hemengo arte eszenikoetako arazorik larriena, ez antzerkigintzan, ezta dantza sorkuntzetan ere. Mehatxuak kanpotik datoz: merkatuen ahultasuna, zergak, kanpora ateratzeko erraztasun falta, sare eta zirkuituen arazoak...

Euskarazko antzerkiak publiko gutxitua duela esaten da. Bat zator?

Gaztelaniazko ikuskizunekin gertatzen den bezala, euskara hutsezko ikuskizun batzuek antzokiak betetzen dituzte eta beste batzuek ez. Antzezlanaren arabera da hori, ez hizkuntzaren arabera.

Publikoa hezi beharra dago?

Lorcak ere esaten zuen hori, publikoa hezi egin behar dela. Programatzaileen betebeharretakoa bat ere horixe da, hain zuzen. Publikoari proposamen ugariak aurkeztu behar zaizkio, kontzeptu ezberdinen aukera eman. Publikoak badu ikasteko grina, proposatzen diren jarduerak –tailerrak, topaketak, entsegu



Norka Chiapusso, ezkerretik hasi eta hirugarrena, dFeria jaialdiaren aurkezpenean.

irekiak...– gainezka egoten baitira. Bere ibilbidean dFeria-riak leihoak parez pare ireki dituenek, ausardia handiko publikoa erakarri du.

Sortzaileentzat publikoaren figura gero eta garrantzitsua da, harekiko gertutasuna nahi dute.

Sortzailea da figura nagusia sektore honetan. Sortzailea eta publikoa, noski.

Programatzaileek ez duzue ospe onik sortzaileen artean,

askotan sortzailea baztertzen delako kudeaketa guneetatik.

Beti egongo da norbait, antzokian nork eta noiz egon behar duen esango duena. Eginkizun hau ez da eroso, jakina.

Zein irizpidez programatu behar da?

Irizpideak anitzak dira: kalitatea, agertokia egokia den ala ez, publikoaren jarrera, teknika... Baina kontzeptuak ere kontuan eduki behar dira, hots, publiko ezberdinak bilatzea, istorio interesgarriak eskaintzea eta lehen aipatutako askatasun zentzu hori hedatzea.

Donostia 2016 gero eta gertuago dago. Erronka handia da hiritarrentzat. Kultura gosea, premia eta garapena handitzen doan zerbait da?

2016 proiektuak garrantzi handia dauka, aukera paregabea delako. 2016 ondoren, Donostian urteotan sortzen ari diren harremanek eta sinergiekin fruitua emango dute; prozesuetan oinarrituta eta hiritarren dinamika berriak bermatuta, arterako espazioak eta sentikortasuna berreskuratzea dira erronkak eta etorkizunean iraunkorrak izango dira. ■



Kulturaren ekosistema egituratu dadin, oinarri bila

Kulturaren egoeraz eta etorkizunaz kezkatutik, otsailaren 27an egun beteko jardunaldian parte hartzeko deialdi zabala egin zuten zenbait eragilek, tartean, Ahotsenea, Eskena edo Kulturalive zeudela. Sentsibiltate eta arlo guztiak elkartzeaz gainera, nor bere jardunetik mintzatzea eta aurrera begira adostasunera heltzeko bidea bilatzea izan zuten helburu GEUK Topaketan.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

LITERATURA, musika, bertsolaritza, dantza, arte plastikoak nahiz beste hainbat arloko sortzaileak, antolatzaileak, bitartekariak, hezkuntzako eragileak, kazetariak eta hartzaileak batu ziren Durangoko San Agustinen, sentsibiltate ezberdineko 150 lagun guztira, gune irekia deritzon metodologian hausnarrean.

Kulturari bultzada emateko proposamen ugari atera zen gaika antolatutako taldeetan, “benetako ideia-erauntsia” izan zen hura, Gotzon Barandiaran batzorde eragileko kidearen arabera: “Batzuek oso egituratuta ekarri zituzten asmoak, eta soltean ere gauza mordoa mahairatu zen”. Besteak beste, euskal kulturaren kontseilua eratzeak aukera, edo cluster moduko zerbaitera jotzea, herrietan kultur taldeak sortu eta haiek saretea, topiko guztien gainera elkar ezagutzeko espazioa eratu beharra, kulturaren ikusgarritasuna lortzeko beste herrialdeetako ereduak aztertzea eta interesgarrienak ekartzea...

Topaketa egin eta bost egunera, martxoak 4 zituela, Bilboko Zazpi Kaleetako La Bol-san batu zen batzorde eragilea (ohiko 12 lagunak eta beste sei, deialdia irekia zenez), topaketaren balorazioa egitearren. Ezer baino lehen, sortzaileengandik hasi eta hartzaileenganainoko abanikoan sumatzen den gogoia eta lanerako prestutasuna goraiatu zuten, eta sentsibiltate ugari batzeak dakarren aberastasuna. Topaketan atera ziren gaiez aparte, iritzi ugari bildu dute gerora, epostaz edo blogaren bidez, “topaketak oihartzun handia izan duen seinale”. Bi aste-
ren buruan, erauntsi hartan ateratako ideiak



Otsailaren 27an Durangoko jardunaldian ateratako zenbait ideia, post-it paperetan.

ordenatu, egituratu eta testu proposamen bakarrera ekartzeko ardura hartu zuten, eta horren arabera, maiatz-ekainerako, “Durangoko beroaldia hoztu baino lehen behintzat”, egun beteko beste deialdi zabalera deitzeko konpromisoa. “Ez da otsailaren 27koa bezain irekia izango”, diosku Barandiaranek, “eguna finkatzeaz batera, zeri buruz hitz egingo dugun ere zehaztuko da, nahiz eta asmo berriak proposatzeko aukera ere izango den, baina hortik ekintza plan bat ateratzea nahi genuke, zer eta nola egin behar dugun, eta proposamen jakin horiek zein egitura eduki beharko luketen”.

Durangon esandakoak zenbait txostenetan bildu dituzte blogean, (geuk14.wordpress.com), eta atzetik heldu diren iritziak ere ikusgai daude. ■





Helduen Literatura

Hobe isilik
Garbiñe Ubeda
Elkar, 2013

Idazteko arrazoiak

GEORGE ORWELLEK prosa idazteko zerrendatu zituen arrazoen artean bi topatu ditugu nabarmen Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* lanean: benetako historia ezagutu eta gerokoentzat uzteko desioa eta mundu ikuskera aldatzeko bultzada politikoa. Narrazioan zehar protagonista bere aitona zenaren arrasto galdua argitu nahian ibiliko da, eta bidean topatutakoei lekua egiten izango du lanik gogorrena. Hasiera batean bere familiaren historia ezagutzeko nahiak gidatuko du eta amaieran dilema handia agertuko zaio parez pare: zer egin, sekretua gorde ala egia jakin(arazi)? Memoria berreskuratuz bere identitatea osatuko du, aspaldi aitona inguruan fabrikatu zuten irudia, “anarkista prestuaren mitoa”, aldatzen joango da, bilakaera bat izango du datu berrien argira, eta kapituluz kapitulu agertuko diren pista berriekin makrohistoriatik mikrohistoriarako jauzia egingo du, bere sustraiak ezagutuz eta errealtatean gertatu zenetik pixka bat hurbilago kokatuz.

Protagonistak detektibe lana egiten du aitona urratsen atzetik joateko, eta bide horretan senarra eta ileapaintzailea ditu konplize eta bidelagun. Aurkitzen duen guztia “bitakora kaiera” batean jasotzen du, asimilatu ahal izateko eta bere ideia eta emozioak antolatu ahal izateko, jasotako informazioari esanahia eman ahal izateko, bere aitona bizitza eta erabakiak ulertu nahian. Virginia Woolfek behin esan zuen beretzat ezer ez zela erreala, idazten zuena izan ezik. Eta hori da protagonistak egiten duena, bere mamuak hezur-

haragizko bihurtu eta haiekin bakeak egin. Koaderno/elaberri honetan aitona zuzenean hitz egingo dio bizien artera itzuliz, berarekin elkarrizketa bat izango da idatzizko testu hau, eta horregatik/horretarako agertuko da etengabe bigarren pertsona singularra aitona hitz egitean. Zu, eta gu.

Gloria Anzalduentzat idaztea arlo espiritual, politiko, sozial, sexual eta etnikoen alkimia egitea da, idazlearen munstro eta mamuekin konfrontatuz. Garbiñe Ubedak ARGIAN egindako elkarrizketan dio berak galderak egin dituela, ez erantzunak eman. Adibidez: zer egin topatutako gertaerekin? Nola ulertu gertatutakoak atzean dauden arrazoiak ezagutu gabe? Familiaren historian murgiltzean argi-ilunak topatuko ditu edonork eta leku bat egingo die aurkitutakoei, han edo hemen kokatuko ditu, sekretu bihurtuko du eta kutxa batean gordeko ala senide eta lagunei kontatu eta egia bat sortu. Kasu honetan ideologia eta emozioak uztartuta topatzen ditugu eta protagonistaren bihozkadak, obsesioak eta maniak izango dira akuilu historia hau idazteko. Azkenean bestea erraz eta arinki epaitu beharrean, egindakoa eta izandakoa onartu eta errespetatzeko eskaera egingo digute Bakartxok eta Pernanek, bakoitza bere garaian eta bere egoeraren baitan kokatuz eta horren arabera ulertuz. ■

Amaia Alvarez Uria





KUADRILLA ARTEKOAN

EZ DAGO SUPERHEROIRIK

www.bertsozale.com/araba



otsailak 18-apirilak 5





Piraten matxinada
McOnak

Mauka, 2014

Kantatuz adorea airean

BITXIA DA azken urteetan Euskal Herrian folka eta punka ezkontzeko sortu den zaletasuna. Hala ere, zeresan dezente ematen badute ere, ez dira hainbeste talde joera hori hartu dutenak eta beraien proposamenak desberdinak dira. Bizar-dunak talde nafarra (nongoa, bestela?) izan zen aitzindaria, eta gure arbasoak eta erreinua azalera ekartzeaz gain, punka folkera eta folka kaos erdi kontrolatura eramanez, azken urtean esperimentatzen hasi ziren arte. Goierri eta Bergarako kideak dituen Fiachras taldeak ukitu pertsonalagoa dauka, malenkoniatsuagoa eta are tabernazaleagoa, multzo txikiagoetakoa. Horien artean Lekeitiko McOnak taldea da gazteena, baina kostaldekoak dira, eta urte eskasetan lortu dute gazte asko beraien itsasontzira igotzea eta portuetara heltzen direnean pitxarrak altxata ongietorri beroa egitea.

Jakina da itsasoak nahi duena eraman eta ekartzen duela; eta ezaguna da ere, itsasora begira bizi direnek kanpotik asko jasotzen dutela: ona eta txarra. Era berean, azala eta, batez ere, izaera gogortzen zaie. Lekeitioko sei gazte hauek itsasoa zainetan daramate, eta hark eman die olatuek kostaldeko harrien kontra borrokatzeko pareko grina. Eta besterik ere eman die: hain urrun eta aldi berean hain gertu dautzagun Irlanda eta bere ospakizunak, negar eta guda musika, erraietakoak, folka alegia.

Odol gazi berria heldu da itsas bazterrera, gelditzeko asmoz. Saxo, whistle, soinu, harmonika eta ohikoagoak diren rock instrumentuez lagunduta, folkean oinarritu eta beste hainbat estilo lantzeko gai izan dira *lekittarrak*.

Piraten matxinada izenpean, marinelek taberna zaharretan etsaiak lumatzen dituzten gisa abesten dute, garagardo pitxarra eskutan, distantziak eragin-



KALERAROCK

dako negar malkoa ia agerian, baina laguna besarkatuz adorea airean. Folka malenkonia eta adorea da, herriaren kanta delako, eta hala sentitzen dute hauek ere. Baina Hertzainak-eko Garik antzina abestuko lukeen parera edo, The Solano's gogora ekarriz, euskarazko rock biziaz ere ezarriak urratzeko gai dira.

Diskoa ontzeko eta, tarteka, kantuei country, punk-rock, ska, reggae eta bestelako janzkera jartzeko, luxuzko gonbidatuak izan dituzte lehen disko luze honetan: Fiachras-eko Haritz Artola, Audience taldeko Ager Isunza, Delirium Tremens-eko Andoni Basterretxea eta Skakeitan taldeko Olatz Salvador, besteak beste.

Hitzetan ere malenkoniak gain, (auto) kritika zorrotza egiten diete beraien buruei eta herri honek lasai bizitzen uzten ez diguten hainbati eta hainbati, metafora eta esaldi irudimentsuak erabiliz. Gainera, herrikide zuten Ume Gaiztuak taldea omendu nahi izan dute, gaur idatzia dirudien *Espekulazioa* kantua gogora ekarriz.



Bitartean, McOnak-ekoek abesten duten bezalaxe, "Heriotzak harrapa gaitzala berarekin dantzatzin". ■

Iker Barandiaran



Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Virginia Imazek, Oihulari Klowner antzerki taldeko kideak, esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


2		9	5			7		
3	1			2	7			
4		5	3					1
5	9	4						
			9		2			
						1	9	6
6					4	5		7
			1	7			4	8
		1			8	3		9

Zaila

	9	8	2		4			
	7				8			
			3			9		8
	2						3	1
		6	5		2	8		
8	5						4	
5	3			9				
			8				9	
			6	7	4	2		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Ohar. 2.-Gabe. 3.-Itoarazi.
4.-Pipia, zedena. 5.-Ukamenak.

Kike Amonarrizen umorea

Nola deitu

Parrandan ezagutu, gau zoragarria elkarrekin pasa eta goizean, elkar agurtzean, honelaxe esan dio batak besteari:

- Eta hemendik aurrera deitu lasai!
- Ados! Hala nahi baduzu, halaxe egingo dut!
- Hurrena arte, Aratz!
- Ikusi arte, Lasai!



Soluzioak

Erraza

2	8	9	5	7
3	1			2
4		5	3	
5	9	4		
			9	2
				1
6				4
		1	7	
	1		8	3

Zaila

9	8	2	4	
7			8	
		3		9
	2			3
		6	5	2
8	5			
5	3		9	
		8		9
		6	7	4

Puzzlea:

“Gauzak aldatzen ari dira, konfiantza handia daukat etorriko den horretan. Krisi ekonomikoak ez du hainbesteko eraginik izan emakumeon sorkuntzan.”

5x5:

1. Abisu. 2. Barik. 3. Irato. 4. Sitsa. 5. Ukoak.

Nola bizi hala kanta

Egunsentiaren kantak

Kontzertua: Pier Paul Berzaitz, Joxan Goikoetxea. Erramun Martikorena, Txema Garces, Estitxu Pinatxo, Magali Zubillaga, Oriol Flores, Josune Marin eta Alan Griffin

Non: Quintaou auditoriuma; Angelu (Lapurdi).

Noiz: otsailaren 28a.

ANGELU zoko arrotza da euskaraz bizi garenontzat. Joxean Arbelaiz kultur eragile oartzuarrarentzat baina, Euskal Herrian ez dago zoko baztergarririk. Angeluko Quintaou auditoriumun paregabea mukuru bete zuten *Egunsentiaren kantak* kontzertuaren emaileek. Gure Ipar eta Hego aldeak batzen dituzten musikariak dira, badira haratagotik jinak hala ere: Oriol Flores katalana eta Alan Griffin irlandarra, kasu. Honezkero, biak ontsa Euskal Herriratuak.

Kontzertua bi musikari zailduen gainean funtsatzen da. Pier Paul Berzaitz muskildiarren eta Joxan Goikoetxea hernaniararren arimen uztartze kolektiboa da, eta euren inguruan bildu musikariek eta kantariak emanaldia maila duinera igotzen dute. Alta, *Egunsentiaren kantak* ez da musikari horien emanaldia soilik. Errepertorioa euskal kanta eta letra egile ospetsuen agerraldia da.

Berzaitzek zabaldu zuen kantaldia, Zuberoko kanta tradizionalaren ekarle. Estitxu Pinatxo eta Magali Zubillagaren ahotsak izan zituen lagun segidan. Entzuleon magalera heldu ziren lehen nota eztiak, biek ala biek duoz xarmanki emanak. Mixel Labeguerieren *Elur egin du* kantaz epeldu zizkigun bihotzak Erramun Martikorenak. Zaldubiren *Ameriketako bidean* delakoarekin itsasoz harantz eraman gintuen: XVIII. mendean gertatu zen 150.000 euskaldunen exodoa oroitarazi zigun. Sei urtetan (2.000 herritar hileko) Ameriketara alde



DANI BLANCO

Egunsentiaren kantak kontzertuaren musikariak eta kantariak.

egin zuten hazkurri xerka. Martikorenaren kantaerak azkura eragin zigun. *A cappella* abestu zuten Berzaitzek eta biek segidan. Taldea ongi konpaktatua jada, doinu zeltek eta irlandarrek apaindu zituzten euskal kanta tradizionalak: iraganaren nostalgiaren lekukoak. *Nola bizi hala kanta* ospetsua berritu zuten, euskaldunon izaeraren agergerri.

Kanta guztiak ez ziren zaharrak izan. Berzaitzek Imanol eta Xabier Leteri kanta berriak eskaini zizkien: norberak egindako kanten parekorik ez dago. Zein baino zein ederra goak. Imanol eta Xabierrekiko aierua sentitu (ge)nuen haren ahotsean. Joseba Sarrionandiaren *Oroimeneko portua* eta *Aldaketarik aldaketa* Magali eta Estitxuren ahotsetan... Bigarren kanta "marjinatu" izan ote den nago. Herriaren sufrikarioa sentitu nuen, baita kanta zokotik atera izana ere.

Bizitasuna ekarri zuen Estitxu Pinatxok segidan, jazzaren erritmoan. Taula gaineko haren estiloak Tina Turner oroitarazi zidan. Irudimena libre. *Guk* taldeko *Eki eder* kanta eta Jon Sarasuaren berba bizibiziak errepikatu genituen entzuleok. Magali Zubillagaren urtebetetzea kari, *Zorionak* kantua ere bai.

Irriak eszenatokian eta barreak besaulkietan.

Ordua joana zen aspaldi, ia ohar-tu gabe. Musikarien aurkezpenak egin ahala, agurra sentitu genuen 800 entzuleok: "Agur goiztiarra, to eta no!". Entzuleon nahikaria neur-tzeko, naski. Ez kexa. 45 minutu gehiagoz jardun zuten: mitoak, erri-toak eta ereserkiak nagusitu ziren aretoan: Ernest Alkat zenaren *Aments egin dut*, Leteren *Xalbadorren beriotzean*. Berzaitzen *Baratze bat...* Hilko ez diren kanten zoratu zuten entzuleria. Gogoan iltzaturik ditugu. Entzuleon adina? Batez beste, 50 urte, hor nonbait.

Goraipatu beharra dago Goikoetxea, Garces, Marin, Flores eta Griffinen finezia, nork bere instrumentuarekin duen abilezia. Egun nola bizi garen ikusirik, mende honen amaieran Berzaitzek sortutako kanten arabera bizi bagara, *Sortu(ko) dira besteak!*. "Eta Ameriketara joan ziren 150.000 euskaldun ele bakarrak itzuliko balira?". Elur malutak ari zituen kanpoan eta ni gaueko ameslari nintzen. ■

Mikel Asurmendi



Fukushima gogoratuz hiru urte geroago

AFP



MARTXOKO lehen asteburuan ehunka pertsona irten ziren kalera Tokion, Japoniako Gobernuak TEPCO enpresari erantzukizunak eskatzeko bidea etengo duela jakitean.

Ofizialki ez da inor hil erradioaktibitatearen eraginez; estresagatik edo istripu nuklearrarekin zerikusirik duten gaixotasunengatik, berriz, 1.656 lagun baino ez.

Hiru urte igaro dira zentrala lehertu zenetik, eta Gobernuak Fukushima prefekturako hainbat eremutan bizitzeko bai-

mena ematen ari da. Jendea pixkanaka itzultzen ari da, jende txiroa eta umila batez ere, aberatsek milaka kilometrora dauden irletara emigratu baitute.

Bitartean, berriak zipriztinak bailiran ailegatzen zaizkigu. Itsaso Bareak ukitzen dituen herrialdeetan gero eta arazo gehiago atzematen ari dira —oraingoz bakanak badira ere— arrain eta hegaztien osasunean: malformazioak, aldaketak migratze-ohituretan... Fukushiman, tiroideetako tumore kopurua apurka-apurka gorantz doa umeengan. Fukushima inguruko prefekturatan erradiazio handiko guneak azaltzen dira inolako logikarik gabe. Eta abar. ■



“Ezkutuko” oinezkoak detektatzen dituen autoa

AUTOMOBILA gidatzen dugunean gure aurrean baloi bat agertzen bada, jakin badakigu ez oso urruti ume bat izango dela, nahiz eta guk ez ikusi. Baina beti ez da izaten gidaria ohartaraziko duen baloirik, eta edozein unetan aparkatutako kotxeen artetik ikusi ez dugun oinezko bat azaldu daiteke.

Municheko Unibertsitate Politeknikoko ikerlariek arazoari aurre egiteko sistema asmatu dute: autoan antena sorta bat jartzen da, eta oinezkoen arropetan edo telefonoan, seinaleak islatzeko transpondedoreak. Autoak seinalea emititzen du, eta transpondedoreak islatu egiten badu, ordenagailu batek oinezkoa zein distantziatarago dagoen kalkulatu eta erabakiak hartzen ditu: edo ez du deus ere egiten, edo soinu bat igortzen du gidaria ohartarazteko, edo autoa bat-batean gelditzen du. 2020. urtearen inguruan hasi nahi omen dute sistema merkaturatzen. ■



KO-TAG



Bakterioak elektrizitate sortzaile

Kataluniako Arkitektura Aurre-ratuen Institutuko zientzialari talde batek energia sortzen duten panel fotovoltaikoak diseinatu dituzte. Lurreko bakterioak dira, izatez, elektrizitate sortzaileak; landareek sortutako elikagaiak metabolizatzean, bakterioek elektroik askatzen dituzte, eta elektroik horiek zirkuitu batera bidaltzen dira gero.

ttiki.com/61872
(Euskaraz)

Zulo beltzek uste baino energia gehiago emiti dezakete

Zulo beltzetan masa metatzen denean, uste baino energia gehiago askatzen da kanporantz, Australiako ICAR zentroko ikerlariek adierazi dutenez. Batetik, eremu magnetikoen eraginez igorritako masa gutxiko *jet*-ak (materia txorrotadak), eta bestetik masa asko eraman dezaketen haizeak dira horren erantzuleak.

ttiki.com/61873
(Gaztelaniaz)

Hidrogenoa metatzeko modu berriak

Elektrizitatea sortzen denean, sare elektrikora bidaltzen da edo galdu egiten da, gaur-gaurkoz ez baitakigu metatzen. Ikerlari frantziar baten arabera, hidrogenoa magnesioarekin nahastuz egoera solidoan gorde daiteke nahi adina denbora. 30 zentimetroko diametroa eta 1,5eko zabalera dituen disko batean 600 litro hidrogeno gorde omen daitezke.

ttiki.com/61874
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Loretik dator eta dihoa mundua

ERLE FESTA hemen da, loreen peskizan. Aurtan, goiz-goizetik datorkigu loretza. Orintxe dugu udaberriko ekinozioa, luzera bereko gaua eta argia dituen eguna, eta lore erakusketa izugarria da.

Lorea eta erlea gauza bera dira, ezta? Etxekoak, biak ala biak beharrezkoak. Etxekoren bat hiltzean, erleei, hilobia argitzeko argizari gehiago egiteko eskatzen zaie, eta eultzean, oihal beltz bat ipintzen da.

Loreak, udaberriak, aitortza merezi du. Eskerrak loreei, bestela ez ginateke. Inauteetatik hasi eta uda atariko egunik luzeenetara arteko ospakizunek hori diote: gora loreak. Lizarrak, elorri zuriak, erramuak, palmak, arrosak, garia... adarrak edota sortatxoak etxeari, baratzeari, soroari, belardiari, sagardiari eta, zenbait ospakizunetan, baita geuri ere, soinean, buruan, dantzetan... Naturari egindako eskaintza dena, opor usaineko jai bihurtu dugu, edo, okerragoa dena, erlijio.

Loretik gara, bai, dena, garena dena. Onena eta txarrena. On ugariak aldera utzita, txarretik ere nahi adina ematen digute loreek eta beren landareek.

Bihotza bere onetik ateratzeko gai da landare asko, gontzetatik jauzarazteraino.

Baina bere onetik ateratako bihotza gontzetara ekarri ere egin



JOAQUIM ALVES GASPAS-CC BY SA

Heriotzorria, *Nerium oleander*, dosiaren arabera kalte bezala mesede egin diezagukeen landare ugarietako bat.

dezakete landare horiek berak. Txarrena eta onena. Kuku-praka (*Digitalis purpurea*), mugeta (*Convallaria majallis*), antiaris tropikala (*Antiaris toxicaria*), elefante bat hankaz gora jartzeko gai den izerdia duen *Acokanthera schimperi*, geziak pozoitzeko gaia kentzen zaion *Strophanthus amboensis*, *Asclepias* generokoak, *Calotropis gigantea*, astatipulak (*Hyacinthoides hispanica*, *Drimys maritima*...), *Bryophyllum daigremontianum* madagaskartarra...

Dosiaren arabera, kalte bezala mesede egin diezagukeen landare asko dago. Tartean, izenak nahikoa adierazten duen heriotzorria (*Nerium oleander*); merezitakoa izango al du! Maiz ikusten da lorategi eta etxe tarte batez ere berrietan. Eskerrak haren izenaren berririk ez duen jendeak... Haren izanaren berririk...

Ni erleetara nihoa, argizaritara. ■





- Elikagai ekologikoak
- Usurbilgo baserrietako produktuak
- Sagardogintzarako tresneria
- Tratamendu naturalak
- Onttoen haziak...
- Banaketa zerbitzua

DENDAREN ORDUTEGIA
Astelohenetik-Ostiralera: 9etatik-13tara eta 16tatik-19.30tara
Larunbatetan: 9etatik-13tara
Tel/Fax: 943 36 11 14
www.alkartasunausurbil.com • alkartasuna@usurbil.com

Akadiako Rimush erregea, kontzentrazio esparruen asmatzailea

LOUVRE MUSEOA



Ezkerrean, *Naram-Sin-en Garaipen Estela*. Izen hori eman arren, adituek ez dakite ziur erliebeko eszena Naram-Sini edo haren osaba Rimushi dagokion. Alboko argazkikoa, ordea, Rimushen garaipen zerrenda da ziur. Erregearen "lorpenen" artean kontzentrazio esparruak asmatzea dago.

MESOPOTAMIA, DUELA 4.350 URTE INGURU. Sumeriako bigarren errege akadiar Rimushek sumeriarrak sumindu zituen. Haren aita Sargonek akadiar dinastia fundatu zuen, eta sumeriarrei boterea kendu arren, haiekin adiskidetzeko ahaleginak egin zituen: haien kultura, erlijioa eta hizkuntza errespetatu zituen, eta ez zien inposatu gustuko ez zuten agintaririk. Edonola, haren erregealdiaren amaieran hainbat hiri sumeriar matxinatu ziren. Sargonon seme Rimushek erregetza hartu zuenean, matxinada haren jarraipenari aurre egitea egokitu zitzaion. Sumeriarren agintepean zeuden Zabala, Adab, Umma, Kidingira, Ur eta Lagash hiriak altxatu ziren, Adabeko Meskigala buru zutela. Azkenean, akadiarrek mendean hartu zituzten sumeriarrak berriro, eta Rimushek ez zuen izan bere aitak adina gupidarik.

Rimushen testuetako zifrek hotzikara eragiten dute: Adaben eta Zabalan 15.718 hildako eta 14.576 preso izan ziren; Umman eta Kidingiran, 8.900 hildako, 3.450 preso eta 5.985 deportatu; Lagashen eta Uren, 8.040 hildako, 5.460 preso eta 5.985 deportatu. Testu gehigarri batean aipatzen da beste hiru gudutan sumeriar koalizioan 11.322 hildako, 10.680 preso eta 14.000 deportatu izan zirela. Sarraskiaren dimentsioaz jabetzeko kontuan hartu behar da garaiko hiri handienek, Urek adibidez, 50.000 biztanle inguru zituztela.

Rimushen laudorio-testuetan kopuruak puztuta egon daitezkeen arren, gerran 50.000 sumeriar hil zituztela kalkulatzen da, eta beste 35.000 preso hartu zituztela. Zer egin azken horiek enbarazu egin ez zezaten? Rimushek ezagutzen den lehen kontzentrazio esparrua eraikiarazi zuen. *A-na ga-ra-si-im ish-kun* hitzekin definitzen da eremua, eta adituak oraindik ez dute lortu hitz horiek itzultzea. Beraz, ez dakigu itxitura hura gatibu lanak egiteko eremua ala deuseztatze esparru hutsa zen, baina bertan milaka pertsona hil ziren edozein kasutan. Rimushen agintaldiak bederatzi urte iraun zuen, estatu kolpe batean harrizko zigilu batez buruan jota hil zuten arte.

Subkontziente kolektiboan kontzentrazio eremuak Alemania naziari lotuta daude. Baina, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, alemaniarrek halako desohorea beren gain hartu nahi ez eta esparru horien sorrera ingelesei egotzi zieten. Hala, zigor itxituren jatorria Boerren Gerretara atzeratu zen. Orduan, ingelesek fardela espainiarrei utzi zieten, 1898ko Kubako Gerran dagoeneko antzeko eremuak antolatu baitzituzten. Horrela, gaizki eginga auzokoak lehenago egin zuela salatu-ta, kontzentrazio esparruen asmatzaile tituluak Antzinaroaren hastapenetaraino atzera egin eta halako neurri ez-zibilizatuak zibilizazioa bezain zaharrak direla erakutsi da. ■



Arrastoak

Haur hilketa ohikoa zen Antzinako Erroman

ENGLISH HERITAGE



KARTAGOTARREK haurrak sakrifika-tzen omen zituzten, eta pentsatu baino ohikoagoa zen Antzinaroan. Erromatarrek ere haur jaio berriak hil ohi zituzten, besteak beste duela mende bat Hambleden-en (Ingalaterra) aurkitutako 33 eskeletoen arrastoei erakusten dutenez. Orain arrasto

horien ADNak aztertu dute eta emaitza *Journal of Archaeological Science* aldizkarian argitaratu: Britainian behintzat, hilko zituzten haurrak ez zituzten generoagatik aukeratzeko, eta familiako haur bakarra hartzeko begiramenaz zuten behintzat, ADNak ama desberdinenak baitira. ■

Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI VITI

Usurbil 2009-Gipuzkoa 2014: aldaketa handiaren gakoak

Martxoaren 16an ospatuko da hondakinak kudeatzeko sistema berriak, Zero Zabor ereduak, Gipuzkoan egindako lehen agerraldiaren bosgarren urteurrena: Atez Atekoaren hasiera Usurbilen. Bost urte geroago, ezer ez da berdin ez Gipuzkoan, ez Euskal Herrian.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MAIATZEAN HERRITARREN %22 baino gehiago biziko da hondakinen %75 baino gehiago gaika sailkaturik biltzen dituzten herrietan, Gipuzkoan. Eta aurrera begira beste zenbait udalek hartutako erabakiak gauzatzaren badituzte, 2014a amaitzerako %30 baino gehiago izan litezke.

Joan den otsailean, Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu dizkie alderdi politikoei eta gizarte eragileei lurraldeko hondakinak kudeatzeko plan berriaren zehaztapenak, errausketa plantarik gabeko eskema batean beharko diren azpiegiturak eraikitzea aurreikusten dutenak. Errauskailua barne zela aurreko legeegintzaldian kalkulaturako aurrekontuaren herena kostako da dirutan eta Gipuzkoako birziklatze tasak ipini behar ditu %60ean 2016an eta %75ean 2020an.

Hondakinen sistema alternatibo berria Usurbilek estreinatu zuen 2009 haren ondorengo bost urteotako gatazka eta eztabaiden kronika egitea alde batera utzirik —egunero hedabideek aski azaldu dizkiote horien xehetasunak herritarrari— emaitzen eta lorpenen laburpen bat egitea da hemen asmoa, aurrera begirako erabaki eta urratsen azalpenarekin batera.

%85 gaika, 50 kilo errefus...

Gaikako bilketa orokortua ez da jadanik mito bat: Gipuzkoan maiatz honetan 150.000 herritar, probintziaren %22, biziko dira hori lortzen duten ia 50 udalerrian. Horiek egin dute posible Gipuzkoako Hondaki-

nen Kontsortzioak betiko baztertzea Zubietan aurreikusita zegoen errauste planta.

Duela dozena bat urte lurralde honetarako *PIGRUG 2002-2016* plan orokorra idatzi zutenek bazekiten sistema alternatiboa bazela: Italiatik iritzia ematera deitutako adituek aurkeztua zieten ordurako martxan zen *Racolta Diferenziata Porta a Porta*. Alabaina 2009an Usurbilen estreinatu zutenetik, Atez Atekoak mota guztietako oztopoak gainditu behar izan ditu bost urteotan. Emaitzak ikusi nahi dituenaren begien aurrean daude. Birziklatze tasei dagokienez, Atez Atekoaren modalitatearen batean ari diren herriok denak dabilta %75az goiti, askok gainditu dute %80a.

Zaldibiako herritarren %15 doa zabortegira baina Idiazabalgoaren %58. Azpiegitura berriak berdin ordaindu behar ote dituzte?

Hondakinen atal guztien bilketak egiten du hobera. Kopuruek gora egiten dute paper-kartoi, ontzi arin, beirazko eta abarretan. Gainera, garbiago biltzen dira, horrek materialon geroako birziklatze ahalmeanean daukan garrantziarekin. Portzentajeaz gain, ordea, herri horietan ohartu dira afera honetan

funtsezkoa dela bildutako errefusa murriztea, birziklatu ezin dena gutxitzea.

Konparatzeko, Goierri eta Urola Garaiko herriak biltzen dituen Sasieta mankomunitateak 2012an %39,6ko gaikako bilketarekin pertsonako eta urteko sortutako 382 kiloetatik 232 bidali zituen zabortegira errefus gisa. 2013an, udatik aurrera eskualdeko zenbait herri sistemaz aldaturik, 182 kilo errefus bota zuen.

182 kilo errefusok dagozkio Sasietak 2013an eman zuen batz besteko %45eko birziklatze tasari. Baina mankomunitateko herri bakoitzaren datuak erkatuz erraz ulertzen da hurrengo datua: bilketa sistema ona antolatuta daukaten herrietan 60-50 kilo edo eta gutxiagotara murriztea lortzen dute, gainerakoa berrerabili, birziklatu edo konpost bilakatuz. Horretan datza Zero Zabor ereduaren iraultza.

Sistema baten zazpi aurpegi

Nola deitu sistema berriaren aldagai bakoitzari? Atez Atekoa, mistoa, derrigortua, Zero Zabor ereduak... Hainbat formula zabaldu baitira Gipuzkoan, ideia beraren inguruan: herritarrek etxetik gaika bereizirik entregatzen dizkiote administrazioari beren hondarrak, nahasirik uzteko baimenik ez da.

%70eko birziklatze tasa gainditzea lortu duten herri guztietan kaleetatik desagertu dira zabor nahasiak uzteko kontainer handiak. Uti-



Atez Atekoaren aldeko aldarrikapena Zizurkilen. Hondakinaren gatazkak gogor astindutako herrietako bat, gaur %80tik gorako birziklapen tasa lortzen duena.

kan ekibokatzeko tentazioak. Denean errefusa atez ate biltzen da.

Ataunen eta Ormaiztegin soilik errefusa atez ate, gainerakoak edukiontzietan. Legazpin atez ate errefusa eta hala nahi dutenen organikoa, gainerakoak edukiontzietan. *Sistema mistoa* deitu zaion arren, egokiago litzateke *Atal bakarreko Atez Atekoa* edo *Atez Ateko mistoa* esatea. Bergaran udala bakeagatik —gero ikusi zen alferrik egin zuela keinua— atez ate

errefusa eta organikoa hasi da biltzen, gainerakoak kaleko edukiontzietan.

Gero datoz Atez Ateko klasikoak: lau atal zintzilikarioetan. (Irakurleak jakingo du ia Euskal Herri osoan kristalezko botilak, oihalak, pilak eta beste edo karrikako edukiontzietan edo hondakinentzako biltegi berezietan lagatzen direla). Usurbil hasi zen herritarrei eskatzen organikoa kubo famatuan uzteko

eta gainerakoak era nahiko librean zintzilikatzeko. Geroztik, herri batzuetan papera edo/eta ontzi arinak kolorezko zorro berrerabilgarrietan eskegitzen dira, beste askotan ontzi bereziak dira atal guztientzako...

Edukiontzi txipdunen berririk?

Dagoeneko oso frogatuta dagoen beste bilketa orokortua, gainera emaitzik onenak lortu dituen,



IA HOGEI MILA HERNANIAR ZERO ZABOR BIDEAN!





Atez Ateko bilketarako ontziak banatzen Eskoriatzan: urdina paper-kartoiertzako, marroia organikoarentzako, grisa azken errefusarentzako.

Orendainek estreinatutako eredu da, *Zero Zabor herri txiki*ena. Organiko guztia herritarrek bere konpostatzen dute eta gainerako atalak lagatzen dituzte -ordutegirik gabe, herri txikiak badituzte abantailak-udalak horretarako antolatu dizkien etxolen barruan.

Laster Zestoan ikusiko da Atez Atekoaren aldagai berria, komunitarioa: atarika edukiontzia jaso eta bilduko ditu udalak egunero. Azpeitirako aztertutako modalitateetako bat ere horixe da.

Aldiz, gatazka eta hondakinen politizazioa gainditzeko balio behar zuen edukiontzi txipdunen albiste gehiagorik ez da publikatu ia urte osoan. Elgetan eta Zumaian ziren saiatzekoak derrigorrezko modalitate *Ez-Atez Ateko* honekin, baina menturaz arazo teknikoekin egin dute topo.

Horiez gain, bestelako modalitate berriak ager daitezke aurrerantzean, baina %50eko birziklatze tasa emateko gai ez dira izango orokortuak, derrigorrezkoak eta pertsonalizatuak direnak baizik. Borondatezkoek ez dute gaintitzen %50a. Gipuzkoan ezintasun hori frogatu ondoren aldlatu dira Atez Atekora Lazkao, Aretxabaleta eta gehiago. Derrigortasunaren eztabaidan korapilatuta diraute Orion, Urnietan, Orereta-Erreterian, Donostian eta beste askotan.

Nork behar du TMBa?

Errauste plantarik gabeko kudeaketa berriaren korapiloa orain Gipuzkoak azkar behar dituen azpiegitura berrietan datza. Horietako batzuk, aspaldi eraikita egon behar zuten, Txingudik ahazturik laga duen Zaldunbordako konpost plantak, esaterako.

Azpiegiturotan izar nagusiak dira alde batetik bereizirik jasotako hondakin organikoa, betiko txerri-jana, konpost bihurtu behar duten plantak; eta bestetik, bai nahasirik dagoen zaborra eta bai ondo bereizirik herri aitzindariak entregatutako errefusa geldotzeko (esan nahi baita, usteltzeko edo inguruak kutsatzeko arriskurik gabe lagatzeko) tratatuko dituen TMBa.

Nork ordainduko du? Denek berdin? Hasteko, udalerri bakoitzak pertsonako eta urteko errefus kilo kopuru oso ezberdinak bidaliko ditu bertan trata ditzaten.

Datuak txukunen erakusten dituen Sasieta mankomunitatean begiratu: Zaldibiako herritar baten %15 doa zabortegira baina Idiazabalgoaren %58. Urtarril honetan bertan, hilabetea, Beasaingo 13.800 biztanleek 227 tona errefus nahasi bidali dituzte zabortegira; bitartean, Ordizia, Zaldibia, Segura eta Legorretak (14.259 biztanle) denetara 80 tona besterik ez, beasaindarren %35. Berdin pagatu behar dute?

Kopuruez gain herriek errefusetan jaurtitzen dutenaren osaketak dauka garrantzia berezia. TMBk esan nahi baitu errefusaren Tratamendu Mekaniko eta Biologikoa, erraz ulertzen da bilketa ona egiten duten herrietakoak bigarrenetik, biologikotik, oso gutxi behar duela, kasik organikorik ez daramalako. Bilketa txarra egiten dutenek daukate TMBaren B horren beharrik handiena, errefusetan lagatzen duten ustelkor guztia egonkortzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren plangintza berriak aurreikusten du urtean 170.000 tona errefus tra-



Hondakinekin selektiboak gara

AUZO-KONPOSTA



Oñatiko Udala · Foruen Enparantza, 1 · Tel.: 943 78 04 11



tatzeko gai izango den TMBa. Bilketa txukuna egiten duten herriengatik balitz, aski litzateke horren erdia baino txikiago batekin. Berdin gertatuko da tratatu osteko azken errefusa non ezarri eztabaidatzera-koan. Zaborrak nahasirik lagatzen tematzen diren udal eta herritarrei dagokie pagatzea bai koste ekonomikoak eta bai bestelakoak.

2022.erako... Contarina eredu

Gipuzkoako Foru Aldundiak lortuko ote du oposizio alderdiren batekin adostea aurkeztu berri duen azpiegituren plana? Lan zaila dauka. Politika osoa 2015eko udal hauteskundeetarako motorrak berotzen ari denean, Bilduri ezertan aurrera ez egiten uztea bilakatu da oposizioaren ariketa nagusia, berdin hondakinetan, autobideetako peajeetan, fiskalitatean edo etxe hutsen gaineko zergetan. *Diario Vasco* egunkariak ondotik zorrotz zaintzen ditu batzuen eta besteen maniobrak.


Baina, norbaiti paradoxikoa iruditut dakioken arren, hondakinen-tzako tratamendu beharra orain

bezala hurrengo legealdian norbait edukitzekotan, gutxien birziklatzen duten udalerriek edukiko dute. Esan nahi baita, Bilduk aski indar ez edukitzeagatik gaikako bilketa orokorturik ezarri ezin izan duen herrietan, edo nahi bada, Bildu agintetik errazen kendu dezaketene-tan. Bilduk galdu lezake Gipuzkoa-ko edo herri batzuetako agintea,

baina Zero Zabor eredua alternatibatzat finkaturik dago jada.

Gaikako bilketan %75az goitik dabilzan herri horiek orain urrats berriak dauzkate aurrean. Lehen bezala, orain ere badauzkate ereduak. Italiako Contarina herri elkar-goia da bat ona.

Parisen duela hilabete Zero Waste Europe koordinadorak buru-



Contarina herri elkargoak (560.000 biztanle) aurkeztutako aurreikuspenak, euskaraturik. 2022rako helburua: errefusa pertsona eta urteko, 10 kilo.

USURBIL BOST URTEZ ZERO ZABOR

Ibilbidea eginaz!!

%90 gaika biltzea lortu dugu
Jarrai dezagun bide honetan!
Denon artean egin dezakegu



Usurbilgo Udala

Usurbil
osasuna atez ate

☎ 900 776 776
usurbil.net
atezate@usurbil.net

Sakana, Zabalgarbi, Canopia... ez al da zaborra beste konturik?

EUSKAL HERRI OSORA hedatu da hondakinen eztabaida. Logikoa da: gizakiak produzitzen duen guztitik %90 hondakina da eta horiek abandonatzeko lekurik gabe geratu gara.

Gipuzkoan bezala Nafarroan ere errauste asmoen kontrako erreakzioz antolatu da lehenbiziko Atez Atekoa, Sakana eskualdean, gaikako bilketan duela 30 urte Iruñerrian egindako esperientzia ahaztu samarra zenean. Birziklatze orokortua lekuko hizkerara egokitu dute sakandarrek, herritarren konpostari garrantzia berezia emanez. Zenbait osagai –etxolak– esportatzea lortu dute.

Iparraldean zalaparta gutxiago lortu dute Bil ta Garbi elkargoak Baionako *Canopia* TMBaren ingu-

ruan antolatu duen eskemaren kontrakoek. Baina herritarren bilketa selektiborik gabeko TMBaren kalteak zabaldu dira Frantzia osoan, eta indar berriz entzuten dira Baionako, Hazparne aldeko eta Zubero-ko Sarrikotako jende batzuen kexuak.

Bizkaian berrikitan Ekologistak Martxanek azalera-tu ditu Zabalgarbi errauskailuaren trapu zaharrak. Hala jakin dute herritar askok energiako efizientzia auzitan daukala Zabalgarbi, errentagarritasuna dirulaguntza publikoei zor diela, kutsaduraren kontrolean gorabeherak eduki dituela eta (askoren harridurarako) kiskalitako eskoria eta errausak Bizkaiko zaborte-gietan zabaltzen dituela. Gainera, Lea-Artibai eskualdean sistemaz aldatzeko urratsak ematen hasi dira.

AMBIENTE FUTURO



Italiako Capannori hirian errefusa aztertu eta murrizteko institutua ari da lanean. Ezkerretik lehena, Rossano Ercolini *Rifiutti Zero* mugimenduaren liderra.

tu biltzarrean aurkeztu zuen Contarinarako egoera, mankomunitate hartako lehendakari Paolo Contók.

560.000 biztanleren zaramak kudeatzen ditu Venezia ondoko Treviso eskualdean (Gipuzkoak 709.000

dauzka). Atez Ate biltzen dizkie hondakinak 2001etik.

2009an hurrengo urratsa eman zuten Contarinan, hondakinen zerga egokituz: bakoitzak pagatu beharreko tasak badu zati bat finkoa (familietan biztanle kopuruaren arabera, komertzioetan metro koardoen baitan) eta beste zatia aldatzen da sortzen den zaborraren arabera. Gehien kutsatzen duenak pagatu behar du gehien.

Contarina da Italiako txapeldun hondakinen kudeaketan, atal guztietan. Italiako kudeaketa merkeena eginez, familiei tasarik baxuenak kobratuz, urtean pertsonako 55-58 kilo errefus sortzera iritsi dira (Italian 303). Eta helburu garbi batez ari dira 2022ra begira: azken errefus kopurua urteko 10 kiloraino murriztea. ■





Sasietan LORE

**Sasietan hondakinen
%80 birziklatu baietz!!!**





SASIETA
MANKOMUNITATEA

www.sasietanlore.net



TRIBUAREN BERBAK

Ordu erdiko hizkuntza dosi atsegina

Hilabeteak daramatza Kike Amonarrizek zuzendutako *Tribuaren berbak* telebista saioak prime timean. Bolo-bolo dabil saio erakargarria ari dela emititzen ETB1. Soziolinguistikaren ikuspegitik saioak egin duen ekarpena aztertu dugu.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Iñigo Azkona

ORIO PRODUKZIOAK ekoiztetxeak prestatu du saioa eta zazpi kideko lantaldea ari da beharrean. Dagoneko hamazazpi saio eman dituzte. Kike Amonarriz da programaren zuzendari eta aurkezlea. Amonarrizek beti egin du lan euskararen inguruan, batik bat soziolinguistikaren ikuspegitik, eta alderdi hori lantuko zuen telebista saioa egiteko gogo handiz zegoen. Erronka zuen bere pasioa ikus-entzuleei modu dibulgatibo, interesgarri eta erakargarrian transmititzea. Pasioa, sentimendua transmititu, eta horrekin batera nola ez, edukia, informazioa. Amonarrizek han eta hemen emandako hitzaldi andanatik eta jendearekin izandako hartu-emanetik ondorioztatu duenez, “iruditzen zait euskarak dauzkan baliabideetatik, koloreetatik, aberastasunetatik,

oso-oso gutxi ezagutzen dugula. Egoera aberatsa daukagu, oso jende interesgarria dabil euskararen inguruan, baina askotan ez daukagu horren berri”. Eta ezezagutzaren eskutik datoz topikoak. Lehenengo saiotik hasi zen *Tribuaren berbak* aurreiritziak hankaz gora jartzen.

Zergatik uste dugu hain txiki garela?

Lehenengo saioa *Euskararen tamaina* izan zen. *Tribuaren berbak*-en lantaldeak kolpe bat eman nahi izan zuen estreinaldian, hainbat uste sozial zalantzan jartzeko moduko mezuak prestatu zituzten. Kale inkestan herritarrek egindako jolasean garbi antzeman zen euskaldunok zerbait handia baino txikia garela uste dugula. Orik 10erako eskalan, hiztun kopuruaren arabera, mun-

duan zein toki hartzen dugun galde-tu eta kalean pasatako herritar guztiek 3tik beherako zifrak eman zituzten. Ia milioi bat hiztun izanda bederatzigarren tokian kokatzen da egiaz euskal hiztunen komunitatea. Carlos Cid madrildarrari egindako elkarrizketa adibidez, jende askok aipatu dio lantaldeari; jendea nonbait txundituta geratu da Madrilen bizi eta lan egiten duenak halako euskara maila duelako. Euskal hiztunen komunitatea Euskal Herrira ez dela mugatzen azaldu zuten lehendabiziko saio hartan. Amonarrizek hala dio: “Lehenengo programak erreakzio bat probokatu zuen eta lortu zuen jendeak bere buruari galdetzea ea zergatik ikusten dugun gure burua horren txiki horren txikiak ez izan arren. Uste dut hizkuntzarekiko zenbait diskur-

Marije Manterola, EMUN-EKO KIDEA

«Estekikoki erakargarria da eta euskara gozagarri, bete-beteen asmatu dute»

Zer da azpimarragarri saioan?

Munduko esperientzia oso desberdinen berri emateak, beste tribuez aritzeak, alegia, guretik mundura eta mundutik gurera zabaltzeko ikuspegi lantzeko balio du, asmatu du ikuspegi globala ematearekin. Bestalde, ukitu europarra du saioak; ohiko kamera eta irudi estatikoetatik mugimendura salto egin dute. Estekikoki erakargarri izatea, eta euskara gozagarri egitea, hainbeste aipatzen diren garaiotan, bete-beteen asmatu du.

Soziolinguistikaren dibulgazioaren ikuspegitik zer deritzozu?

Oso erakargarria da: adin-tarteak bereizi ditu, herri-hirien errealitateak landu dira, azken mendeko bilakaera kontatu du, eragileak elkarrizketatu ditu, euskararen biziberritzeak dituen zailtasunak, euskaraz bizitzeko gaur egun dauden aukerak...

Zer hobetuko zenuke?

Oso berandu programatu dute, 22:30ean. Ikusle mota baldintzatzen du, hartzaile potentzialak



izan daitezkeen gazte-haurrentzat ere gomendagarria bada eta saioa.

Programa bizia izateak alde on eta txarrak izan ditzake. Inork ez dezala zapping egin motelegia delako, arren! Baina bestalde, ez ote da azkarregia? Soziolinguistika eta euskararen normalizazioa bizi-bide edo kezka-iturri ez dutenentzat, datu askotxo ez ote dira bata bestearen atzetik entzuteko?



Kike Amonarriz Bilboko Plaza Barrian kale inkesta egiten. Badirudi argazkiko neskak, duen irribarreagatik, ondo erantzun duela aurkezleak jarritako asmakizuna.

tso hipernegatibo zalantzan jartze-kokoa nahikoa material ipini genuela”.

Tribuaren berbak ez da euskaltzale militanteentzat diseinatutako produktua, besaulkian lasai ederrean eserita dagoen ETB1eko edozein ikus-entzule du jomuga. Euskaraz ulertzeko gai den edonor, eta Amonarrizek dioen moduan, “euskara ezer gutxi jakin baina euskara sinpatiko zaion edozeinentzat ere bai”.

Horregatik, erronka produktu atsegina, dinamikoa eta dibulgatiboa egitea da, *prime time*an ikusteko modukoa. Ikuspegi positiboa ematea ere beharrezkoa zen. Euskararen inguruan sumatu ohi den protestatik, negarretik, kexatik urrundu nahi izan dute, eta bestelako pentsamoldea agertu. Ikuspegi politegia azaltzeko arriskua badago ordea: “Horrek ez du esan nahi ikuspegi

inozo-positibista-irrealia eman behar denik, uste dut erakusten ari garena errealitatea dela, ahuldadeak, gabeziak, ezintasunak ikusten dira, baina guk batez ere tonu positiboa transmititu nahi dugu”.

Saioko tribua euskararen inguruko aditu-arituek eta herritar arruntek osatzen dute. Lehenengoek hizkuntzari buruzko jakingai zehatzak azaltzen dituzte eta herritarrek gai horiekiko errealitate soziala islatzen dute. Hainbat irizpide oso kontuan hartzen dituzte gonbidatuak aukeratzekoan, hala nola, lurraldetasuna, generoa, adina eta gaiarekiko jendeak duen hurbiltasun-urruntasuna.

Jendea kale inkestarako supituki harrapatu dutenean erantzun ona izan dute, erdaldunen artean ere jarrera ireki eta zabala izan dute. Beste bat da kale inkestetan, esperotako erantzunak jaso dituzten ala ez. Madrilan eta Bartzelonan hiritarrei euskarazko zenbat hitz edo esaldi zekizkiten galdetu zieten. Biarritzen, euskaraz zekien zenbat pertsona topatuko zuten probatzerara atera ziren kalera. Beste batean txiste kontaketa ere jarri zituzten, jakin gabe zein hizkuntzatan egingo zuten. Beste jolas polita matematikako ariketa izan zen. Ariketa erakutsi eta ozen irakurtzeko eskatu

zitzaian Berako herritarrei. Gazteek euskaraz irakurriko zutela aurreikusi zuten, helduek gaztelaniaz, eta tarteko adinekoen erantzuna zein hizkuntzatan izango zen ez zuten batere argi. Patrikako soziologia deitu die jolas horiei Amonarrizek.

Nola egin euskara erakargarri telebistan?

Ideiak bai buruan, baina pantailara eraman behar dira. Gauean erdi lo dagoen ikusleari ezin ahalegin berezirik eskatu, ezin exijitu euskararen egoeraren inguruko datu eta hausnarketa piloa irensteko. Arreta handiz landu dute informazioa pantailartzeko modua eta horren adibideak Xabier Zapiain errealizadoreak kontatu dizkigu. Pantailan

Euskararen inguruan sumatu ohi den protestatik, negarretik, kexatik urrundu nahi izan dute, eta bestelako pentsamoldea agertu

datu-taula bat ikusi beharrean, maila desberdinetan urez betetako ontziak ikusi ditugu, edo Ipar Euskal Herriko euskararen egoera azaltzerakoan eguraldi maparen bidez “borraskak” eta “antizikloiak” marraztu dizkigute. Zapiainen ustez, “datuen eta alderdi bisualaren arteko oreka lortu behar dugu, zeren datuetara joz gero zenbait ikus-entzule urrunduko baitzaigu, eta nahiago dugu datu gutxiago eskaini eta jende gehiagorengana heldu”.

ETB2n noiz?

Euskaldunentzako saioa badenik ez dago dudarik, baina erdaldunentzako ere bada *Tribuaren berbak*. Amonarrizek ordea, ez du uste azpitu-

Zertarako balio lezake programa honek, zure ustez?

Euskararen egoerari buruz azalpenak, sarri, konplikatuak izaten dira, baina programak modu errazean eskaintzen ditu, eta ikuslearen enpatia sortzeko gaitasuna du. Bestalde, euskarari bere lekua emateko lanean ari den jendearen jarduerak guztion aurrean jartzen ditu. Eta horrek egindakoaren eta egiten denaren tamaina agerian jartzen du: honakoak ikerketa zientifikoetan ari dira, horiek aurrerapen teknikoetan... Hori guztia begi bistan jartzeak proiektu bateratuaren aurrean kolokatzten du ikuslea.

Tonu positiboa nabari da.

Sarri askotan euskararen egoeraren inguruan kezka eta puntu triste bat gailentzen da jendarrean. Programak ordea, egindakoaren alderdi positiboak, pozgarriak eta ludikoak erakusten ditu. Soziolinguistikaren ikuspegitik ezinbestekoa da hori hartzun jarraera positiboak sendotzeko. Gainera, momentu ezin aproposagoan dator programa; azken

latu edo bikoiztu eta ETB2n emateko edukia duenik egiten ari diren saioak. Noski mereziko lukeela halako produktoren bat egitea, baina bestelako molderen batean. Amonarrizen ustez, erdaldunei transmititu nahi zaizkien ideia nagusiak zehaztu beharko lirarteke. “Ez



AMAIA UGALDE BEGONA

denboretan, egindakoaren ahaleginen aurrean nolabaiteko nekea sumatzen ari gara han eta hemen. Neke edo nagi horiek astintzeko pizgarria ere bada zalantzarik gabe.


Eskatzen hasita?

Ez ote dago modurik euskaldunak ez diren herritarrengana heltzeko? Zergatik ez irudikatu “euskaratik eta euskaraz” egindako programa erdarazko azpigituluekin eskaintzea?

da gauza bera euskal musikaz euskaldunei edo erdaldunei hitz egitea; gurasoei dagozkien eginbeharrez hitz egin behar bada, oso mezu desberdinak eman behar zaizkie guraso euskaldunei eta guraso erdaldunei”. ■



Babeslea: Bilboko Udala



HERRI BOZAK IPARRALDEAN

Abertzaleen ahots ozena aldaketa garaian

Herri batzarrak eta elkargoak hautatuko dira Frantziako Estatuan hil honetako 23an eta 30ean, Ipar Euskal Herria barne. Bi itzulitan egin ere, usaian legez. Herriko Etxeetako zinegotzi eta Herri Elkargoetako hautetsi karguak berrituko dira. Areago, orain arte ez bezala, hautagaiak zerrenda bereizietan aurkeztuko dira 1.000 biztanlez goitiko herrietan.

| MIKEL ASURMENDI |
Argazkiak: GAIKAZ IROZ

IPAR EUSKAL HERRIKO herri bozak aldaketa garaian heldu dira. Besteak beste, Baiona, Miarritze eta Donibane Lohizuneko auzapezak –hiru familia *notableen* ordezkariak– politikatik erretiratu direlako: Grenet, Borotra eta Alliot-Marie, hurrenez hurren. Eta, halaber, Frantzia egitura administratiboa berritze garaian dagoelako. Adibidez, abertzaleek bereziki –Batera plataformaren bitartez– Estatuaren egitura deszentralizatzea eskatzen dute, Lurralde Elkargoa ozen aldarrikatuz.

Jakina denez, Iparraldeak ez du izaera juridiko-politikorik. Orain arte, Parisko boterea eta tokiko politikarien arteko “kontratu politiko” bakarra *Pays* egitura bidez gauzatu da. Hitzarmen hori Garapen eta Hautetsien kontseiluek kudeatu dute. Ordea, Estatuaren deszentralizazio “bataila” jokatzeko den une honetan ez dago “kontraturik” ez berezko egiturarik. *Pays* egituraren kudeatzaileek Lurralde Kontratu berria maiatzeko zehaztea exijitzen diote Frantziako Gobernuari. Herriko hauteskundearen ondoren Hautetsien Kontseiluko karguak berrituak izanen dira. Horregatik boz hautetako emaitzen garrantzia.

Herriko Etxeak eta Elkargoak

Herriko bozak politikaren maila apalean jokatzeko diren arren, konplexuak bezain garrantzitsuak dira Estatuaren egitura ulertzeko. Hona hemen Errepublikaren administrazioa osatzen duten hainbat zenbaki:

213 hiri-aglomerazio daude (15.000 biztanlez goitikoak). 15 hiri elkargo (450.000 biztanlekoak). 2.223 herri elkargo. Badago ere metropoli bat: Nizakoa (500.000 goitikoak).

2.223 herri elkargo dira Estatuan, Ipar Euskal Herrian 10. Lapurdin: Euskal Kosta-Aturri eta Hego Lapurdi hiriguneak. Aturri-Errobi, Errobi eta Bidaxune elkargoak. Baxenabarren: Garazi-Baigorri, Hazparne, Iholdi-Oztibarre eta Amikuze herri elkargoak. Zuberoan: Xiberoa Herri Elkargoa. Herriko Etxeetako hautetsiak izendatzeaz gain Herri Elkargoetakoak izendatuko dira, baina lehen aldikoz, 1.000 biztanleko herrietan bi zerrenda izanen dira. Orain arte, Herriko Etxeetako zinegotziek osatzen zituzten Herri Elkargoak. Hainbat iritzi, herri elkargoetako hautetsien izendapen molde horrek demokraziaren eskasia agerian uzten zuen, orain, modu berri horretara zuzenduko da nolabait. Hala ere, udalerrietan aurkeztu diren lehendabiziko hamahiru izenak eta herri elkargoetako lehenbizikoak hautagai berberak direla azpimarratu beharra dago. Dena den, bi zerrenda bereizitakoak dira eta hautesleek bi aukera ezberdin egitea daukate.

Azken hamarkadetan Lapurdiko populazioa %15-20 emendatu da kanpotik etorritako jendearekin

Lapurdi

Iparraldeko jende gehien Lapurdin bizi da. Baiona da hiriburua. Ofizialki ez bada ere, bai sinbolikoki bederen. Zentro-eskuineko Jean Grenet auzapezak utzitako aulkia dago jokoan. Jean-Rene Etchegaray zentrista eta axuantak UMPren sostengua dauka. Bera da hautagai nagusia, antza. Bitxikeria: Lurralde Elkargoren aldeko Batera-ko kidea da. PSko Henri Etcheto du aurkari gogorrena. Hautagai abertzale burua Jean-Claude Iriart da, ezkerreko marka duen zerrenda. Gainerako zerrendak, frantses ezkerreko nahiz eskuinera lerratuak dira. Abertzaleak giltzarri izan daitezke bigarren itzulian.

Miarritzen ere aldaketa heldu da. Didier Borotra auzapez zentristaren garaia fini da. UMPko Max Brisson eta Michel Veunac zentristak (UDI) dira ordezkatzeko hautagai nagusiak. Jakes Abeberri axuant abertzalearen garaia iragan ondoren, abertzaleak zatituta daude. Ez dute berezko hautagaizarik aurkeztu. Biarritz Elkartu eta Biarritz Bestelakoa talde abertzaleetako kideak Michel Veunac-en zerrendetan daude. Miarritzeko abertzaleak ahuldu izanaren seinale. Ez dago auzapez faborito argirik.

Angelu PSko Jean Espilondo auzapezaren gotorleku bihurtu da. Zentro-eskuinak UMPko Claude Olive hautatu du haren aurka egiteko. Angeluzain taldeak Robert Villenave zentrista du buru, EAJren sostenguz. Hemen Angelu zerren-



Jean-Claude Iriart ezkerrean. Baionako auzapez izateko hautagai faboritua Jean-Rene Etchegaray da. Taldeko eskuinean.

da abertzaleena da. Angelu ez da baitezpada abertzaleen plaza.

Donibane Lohizunen ere Michele Alliot Marie-ren aroa bukatu da. Egiari zor, azken legealdietan ez du kargua inoiz bete izan. Normalean UMPko Peyuco Duhart auzapezak berrituko du karguan. Pascal Lafitte da Herri berri zerrenda abertzaleko burua. 2008an, abertzaleek abantzu bozen %20 bildu zuten. Azpimarratzeko kopurua. Hendaian, Battitte Salaberri auzapez zentrista eta PSko Kotte Ezenaroren arteko lehia dago. Tokiko ikastolaren eraikuntzaren aferak markatutako bozak dira. Hendaia Biltzen abertzaleen hautagaia Iker Elizalde da. Hemen ere, abertzaleen jarrera erabakigarria izan liteke bigarren itzulian. Kanbo, Hazparne, Uztaritze ere herri garrantzitsuak dira. Hurrenez hurren, Vicent Bru, Beñat Intxauspe, Dominique Lesbast dira auzapezak, zentristak denak. Abertzaleen bozen emendatzeak eragin lezake herriotako politikan.

Baxenabarre

Donibane Garazi, Donapaleu eta Baigorri dira Baxenabarreko herri nagusiak. Abertzaleen marka agerikoagoa da han: Euskal Herria Bai (EH Bai). Dena den, tokian toki zerrendek berezko izena eta izana dituzte. Donibane Garazi hiriburu-

ko auzapeza Alphonse Idiart eskuindarra da, eta karguan segitze-ko xantza handiena du. Amikuze eskualdeko Donapaleuko auzapeza Jean-Jacques Loustaudaudine da, eskuindarra hau ere. Baigorri eskualde abertzalea da biziki. Alta, UMPko Jean-Baptiste Lambert da herri nagusiko auzapeza. Jean-Michel Coscarat-ek gidatzen du Aitzina Baigorri hautagaitza. Abertzaleek bozen %20 aise gainditu ohi dute lurralde historiko horretan. Areago, Baigorri bozen %30 lortu dezakete. Alabaina, ezkerak, eskui- nak edota zentroak osatutako zerrendek gogor eta bateratuta egi- ten dute abertzaleen aurka.

Zuberoa

Herri Elkargo bakarrean jokatu-ko dira Zuberoko bozak. Maule, Atharratze eta Sohüta dira herri nagusiak. Hiriburuko auzapeza Mixel Etxebest da. Ez du marka abertzale-rik, baina euskaltzalea da. Oposizioa ezkerrean dauka. Louis Labadot-en zerrendan joera sozialista eta komu- nistakoak biltzen dira. Union Citoy- yenneko hautagai nagusiaren aburuz “Etxebest eskuineko gizon klasikoa da”. Beñat Elkegarai da abertzaleen burua: “Gu ez gara EH Bai”. Bera bada EH Baikoa, alta. Zerrendan ekologistak eta ezkertiarrek daude. Sorpresa emateko gisan ari dira.

Basabürüko Atharratzen zerrenda bakarra Arnaud Villeneuve auzape- zarena da. Sohütan, berriz, Christe- lle Mage oraingo auzapeza da fabo- ritoa. Baliteke aurka eginen dion beste zerrenda bat osatzea.

Abertzaleen nahiak eta mugak

Abertzaleek Herriko Etxetan eta Herri Elkargoetan leku zabala har- tzeke lanean jarraitzen dute tinko. EH Bai markaz harago edo honago, bestelako ezkertiarrek eta ekologis- tak biltzen dira euren zerrendetan. Badira ere bestelako abertzaleak, -EAJren ildokoak, adibidez- horiek besteen zerrendetan bildu ohi dira.

EH Bai inguruko hautagaiek Bizi! mugimenduaren hainbat eskaera eta gomendio kontuan hartu dituzte: hala energiaren nola lurraren kudeaketa sostengarria. Halaber, Herriko Etxe batzuek Ikastolen egoitzak eraikitzeke Esta- tuarekin duten auziak kanpainen leku izanen du. Maleruski, herriko bozak izan arren, botere-gune nagusiak Lapurdiko hirigune han- dietan daude. Azken hamarkadetan, bertako populazioa %15-20 emen- datu da kanpotik etorritako jendea- rekin. Eta boto maile hauek herriko hautagai- tzei baino, alderdi nagi- sietako hautagaiei em- ten diete botoa. ■



Zentsura mozio bat, beltzera itzalia

UPN buru duen Nafarroako Gobernuak elite ekonomikoei faborezko tratua eman diela erakusten zuten frogak publiko egin ostean, Yolanda Barcina erortzeko zorian egon da. Aldaketa politikoak itxaron egin beharko du orde. Hilabete iraun duen lapurren pertsekuzioak ez du gehiagorako ematen.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



ARGAZKI PRESS

PSNren Sarasate pasealekuko egoitzaren parean hainbat herritar elkartu ziren joan den ostegunean protesta egiteko. PSOEren aginduz Barcina kargutik kentzeko aukera bertan behera geratu izanak haserrea eragin du nafar askoren artean.

ATRAKOA EGIN eta kazkabar erauntsi baten erdian kotxea ihesean gidatu behar izan duen gaiztaginak legez, gordeleku segurura iristea lortu duela pentsatuko zuen Yolanda Barcinak joan den astean, PSNk bere kontrako zentsura moziorik babestuko ez duela jakin zuenean.

Juxtuan libratu da. Oposizioa gainean izan du lau astez eta azelegailua hondoraino zapalduz, hortzak estutuz gidatu du bolante for-

la, belarri ondoan ziztuka pasatzen ziren tiroek jota eror zitezkeen sozioez gehiegi axolatu gabe, Goicoechea auziaren parrastada ustelak parabrisan zarra-zarra, kontrako norabidean eta argirik gabe.

Lantxo konplikatu bat.

Baina horrelakoa da politika batzuetan: pilotu suizidentzako ofizioa. Kalkuluak zehatz egin behar dira buruari lepo gainean eusteko. Eta Idoia Nieves Nafarroako Oga-

suneko zuzendari ohiak Lourdes Goicoechearen esku hartzeen eskandalua lau haizetara zabaldu zuenean Barcinak asmatu zuen ekuazioarekin.

Kalkulatu zuen egun gogorak zetoizkiola, baina baita ekaitzak baretu beharko zuela noizbait; denborale osteko kalteen balantzean gorpu politiko bihurtuta ez agertzea zela garrantzitsuena. Jakingo zuen akaso PSNtik jaurti zioten horda-

goak iraungitze-data zeukala. Jakin, halaber, erabakia ez zela sozialista nafarren Sarasate pasealekuko egoitzan hartuko, Pancorbotik behera baizik, Madrilgo Ferraz kalean.

Bazekien Europako hauteskundeak ere ez zeudela oso urrun, PSOEk irabazi egin nahi dituela boz horiek Moncloako jauregiaren setioari ekin aurretik; eta garaipen horretara bidean, traba izan zitekeela boto-emale espainiar askoren aurrean abertzale euskaldunekin eskua emanda agertzea.

Alegia, bide bazterretik irten eta arbola bete-betean jotzeko arriskua egon arren, ihesbideak ere bazeuzkela ikusi zuen Barcinak.

Bere burua ez entregatzea erabaki duen bidelapuraren tankean, Nafarroako presidentek mendira jo zuen eta zatotze haren bila nahi baduzue, zuek, justizia zaleok. Bazirudien baietz, ematen zuen oraingoan halako uxaldietan parte hartzeko mizkin agertu izan den PSNko buruzagitza ere animatuko zela.

Urrun zegoen 2011n osatu eta hamabi hilabete eskasean lizundutako UPN-PSN gobernuak. Eta urtebete joana zen 2013ko apirilean oposizioak zentsura mozioa aurkeztu eta sozialisten abstentzioagatik Barcinak ihes egitea lortu zuenetik. Nafarroako Kutxaren auziak eraman zituen orduan Bildu, Aralar-NaBai, Ezkerra eta Geroa Bai presidenteari joan zedila eskatzera. Hemezortzi eserleku horiek gutxiegi izan ziren Legebiltzarrean UPNren hemeretziei eta PPren lauei irabazteko. Eta PSNko bederatzi parlamentariak isilik, ez harako eta ez honako.

Zintzoa, itsusia eta gaiztoa

Aurten diferentea izanen zela sines-teko heldulekuak ez ziren falta, argi samar esana zegoen, “Barcinak dimititzen ez badu, PSNk botakodu”. Eta, zer gertatu da? Westernari titulua eman zioten zintzoa, itsusia eta gaiztoa bezala, hiru hipotesi egon daitezke azken hilabeteen jimenetzarren bandoak egindakoa esplikatzeko.

Azken hilabetearen irakurketa itsusiak dio UPNren eta PSOEren elkar ulertzea aspalditik datorrela. Ez dagoela zereginik benetako oposizioak parlamentuan 25 eserleku batu arte

Zintzoari kasu egitera, PSOEren eta PSNren artean deskoordinazioa egon da, ez dute elkar ulertu eta nik besoa eman, zuk eskua hartu. Teoria horren aldekoek esango dizute bai PSNk, bai PSOEek hordago ustela egiteko asmoa zeukatela hasieratik. Kontua soka tenkatzea zela, ea horrela lortzen zuten Barcinak hauteskunde aurreratuak lehenestea zentsura mozioa galtzearen aurrean –Miguel Sanzek berak kantatu zizkion presidenteari hautu horren bentajak UPNko batzorde exekutiboaren bileran–.

Baina Barcinak hordagoari eutsi. Eta orduan txokolatea: nafarrek apustua pose hutsa baino gehiago

zela sinetsita zeukaten dagoeneko eta madrildarrek uhalei atzeraka tira behar Rubalcabaren, alderdiaren eta Estatuaren izenean, amen.

Xaloa dirudi irakurketa horrek ordea. Goazen hipotesi itsusiarekin 2007ko abuztura. Askok nahiago izan dute ez gogoratu duela zazpi urte –erraz esaten da– UPN gobernutik botatzeko aukera mahai gainean egonda, Bildu izeneko mamurrik gabe, nola PSOEek orain errepikatu duenaren antzeko jokaldia egin zuen.

Lehen aldian tragedia, bigarren aldian fartsa: jende jakintsuak esana da. Azken hilabetearen irakurketa afrusak dio UPNren eta PSOEren arteko elkar ulertzea aspalditik datorrela, Nafarroa egiazki Estatu-afera dela eta harreman guztiek gorabeherak izaten dituzten arren, Ferraz ez dagoela hemen abentura askorako. Ez dagoela zereginik PSNrekin, ez dela egongo, ahazteko, gainontzekoek nola edo hala 25 eserleku batu arte ez eskatzeko mirakulurik.

Aukera gaiztoak berriz, Roberto Jimenezen karguarekin du zerikusia: gauza jakina da PSNko idazkari nagusia norekin lerratu zen 2012an, Carme Chacon eta Alfredo Perez Rubalcaba lehia kaindarrean ibili zirenean PSOEko buruzagitza lortzeko. Badakigu liskarra nork irabazi zuen ere. Ez dakiguna da, Chaconen alde aritu izana berandu eta interesekin ordainarazteko modua izan ote den Jimenezek joan den astean jasandako umiliazioa.

Baliteke PSOEn pentsatzea, hainbeste joan-etorriren ondoren Jimenez dagoeneko amortizatuta dagoela. Martxoaren 9ko *Diario de Navarra*ren

bardoak 2014
 nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea

 nafarroako bertsozale elkartea
 lepatanatuak 2
 txapiroien itzulera (Baztan)
 Oier Amiano
 Jon Barberena
 Kotte Plaza
 Xabier Maia

zortziko haundiarena (Lesaka)
 Eneko Fernandez
 Iban Garro
 Josu Sanjurjo
 Maddalen Lopez

informazio osoa eta zurrerak
WWW.BERTSOZALE.COM

Deus gutxi aldatu duten lau aste

Otsailak 11: Idoia Nieves Nafarroako Ogasuneko zuzendari ohiak publiko egin zituen Lourdes Goicoechea Ekonomia kontseilariaren esku hartzeak. Zergadun handiei ikuskaritzak egitea eragozteko saiakerak, besteak beste. “Goicoechea auzia”-k Nafarroako Gobernua aurrean eramango zuela zirudien.

Otsailak 12: Roberto Jimenez (PSN): “UPNk agortu du Nafarroako Gobernuan geratzen zitzaion luzapendebora. (...) Barcina presidenteak dimititu egin beharko du eta hauteskundeak deitu. Eta dimititzen ez badu, guk botako dugu”.

Otsailak 13: Nafarroako Parlamentuak Goicoechea auzia ikertzeko batzordea eratzea erabaki zuen.

“Ni naiz PSOE Nafarroan”, aldarrikatu zuen Roberto Jimenezek, alderdiaren Madrilgo organoak sozialista nafarrei kasu egingo ziela iradokiz.

Elena Valenciano PSOEko idazkaritza nagusirako hautagaiak Bildurekin ez zutela pakturik egingo adierazi zuen.

Yolanda Barcina Nafarroako presidenteak hauteskundeak maiatzera aurreratzeko “aukera asko” zeudela esan zuen.

Otsailak 21: Idoia Nievesek Goicoechearen esku hartzeak berretsi eta datu gehiago eskaini zituen ikerketa batzordean.

Otsailak 24: Lourdes Goicoechea ikerketa batzordeko aulkian eserita. Behin baino gehiagotan errepikatu zuen ez zituela gogoratzen galdetzen zizkioten datak edo eskatutako datuak.

Otsailak 25: Barcinak ikerketa batzordeko galderari erantzun zien. Salaketak ukatu zituen, PSNri Gobernuan izan zenean egindakoak gogora ekarri zizkion, Bilduren mamua erabili zuen... Kontraeraso gisa hartu zuten kazetari askok haren agerraldia.



Yolanda Barcina, Goicoechea auziko ikerketa batzordean deklaratzeko.

Otsailak 28: Goicoechea auziko ikerketa batzordeak Yolanda Barcinaren dimisioa eskatu zuen. Bat egin zuten eskakizun horretan PSNk, Bilduk, Aralar-NaBaik, Ezkerrek eta Geroa Baik.

Martxoak 2: PSNk iragarri zuen alderdi guztiekin bilerak egingo zituela, Bildurekin izan ezik, Gobernu aldaketaren aukeraz hitz egiteko.

Martxoak 3: Soraya Rodriguez PSOEko Espainiako

Diputatuen Kongresuan duen bozeramaileak *El Mundo* egunkariari: “Barcinak ezin du jarraitu bere postuan, baina PSOEek ez du Bildurekin hitz egingo ezta paktatuko ere”.

Martxoak 4: UPNko batzorde exekutiboko bileran, Miguel Sanz Nafarroako presidente ohiak hauteskundeak aurreratzeko gomendatu zion Yolanda Barcinari. Presidenteak uko egin zion aukera horri eta soka azkeneraino tenkatzearen alde egin zuen.

Martxoak 5: PSNrekin bildu ostean Aralar-NaBaiko Patxi Zabaletak ARGIARI: “Gehiengo esanguratsua zentsura mozioaren alde agertuko dela esan digute eta ondoren, ostiralean [martxoak 7], Madrilera joango direla haiek horretaz konbentzitzera”.

Ferraz kalean ez zuten biharamunera ere itxaron. PSOEak agiri bat kaleratu zuen PSNri zentsura mozioaren aukera zikiratuz. Bildu gabe aukera hori gauzatzea ezinezkoa delako hartu zuten erabakia, dokumentuan aipatzen denez.

Martxoak 6: PSNko Lurralde Batzordeko kideen %60k Madrilgo agindua betetzearen alde bozkatu zuen. Roberto Jimenezek aitortu zuen bere dimisioa mahai gainean jartzekotan egon zela, “baina ezin da PSN izan krisi hau ordainduko duena”.

Lau asteren ondoren, Barcina kargutik kentzeko aukera kea haizean bezala desagertu da.

azalean Pitillaskoaren ordezkari posiblen barajarekin dibertitzen ari ziren. Lapurra gorderik, deus gutxi aldatuta, PSNko idazkari nagusiak hobe luke saihetseko zauri itsusi hori erizainen baten esku jartzea, akaso bizkarretik josi dioten balak etzango baitu. Batek daki alderdiari ere ez ote zaion tiroa infektatuko.

Zenbat atrako geratzen dira?

Balirudike Yolanda Barcina indartuta atera dela segada honetatik,

Nafarroako politikaren denborak markatzeko ahalmena berreskuratu duela hein batean eta ez dituela hauteskundeak aurreratzeko berak egoki ikusten duen momentura arte.

Adrenalinarekin eragina da, ez besterik. Oraingoan ere atzaparra gainean jarriko ez diotela jakinda seguru sentitu nahiko du baina, zenbat atrako, zenbat ihesaldi ezinezko egin ditzake bere egoeran dagoen norbaitek? Zenbat eskan-

daldu, ustelkeria kontu, legez kanpoko esku hartze atera daitezke argitara hamabost hilabeteetan? Zenbat, alderdiko bigarrenak bandako buruzagitza lehiatzen hasi aurretik? Zenbat, oposizioa, benetakoa, inoiz uste izango zena baino gehiago hazi dela jabetu aurretik? Beste film baterako galderak dira. Goicoechea auzia hemen bukatzen da, beltzera itzalia. ■



Okzitaniako Calandretak manifestaldia deitu du murgiltze ereduaren alde

LEGE BABESIK GABE, denak dabil-tza berdin, esan nahi baita Seaska, Calandreta, Diwan eta Bresola. Bertako hizkuntzan irakasteagatik oztopoak baino ez dizkiete jartzen. Okzitaniako Artixeko Calandreta ixteko mehatxupean dago, adibidez. Protesta bide anitz erabili dute orain arte eta martxoaren 15ean manifestaldia egingo dute Paueko kaleetan, Artixeko eskola ez deza-



Artixeko ikastetxeko haurrak herriko etxe aurrean eskolak ematen protesta gisa.

ten itxi eskatzeko eta murgiltze erduko ikastetxeentzako legea eskatzeko. Seaskak autobusak antolatu-ko ditu Pauera joateko.

Athleticen inguruko ipuinak sakelakoan

LEHOLAK AMETSETAN: *Bixentaren abentura zurigorriak* izeneko ipuin bilduma aurkeztu dute Athletic Club Fundazioak eta Euskaltzaleen Topaguneak. Mr. Pentland, Iribar, Zarra eta emakumezko taldeko jokalariek dira zazpi ipuinetako

protagonistak. Ipuinak sakelakoe-tarako eta tabletetarako prestatu dituzte, Kirmen Uriberen hitzekin eta Asisko Urmenetaren marrazkiekin. Helburua gurasoen eta haurren artean euskararekiko motibazioa handitzea da.

Bahea

Xabier Lasak Berrian esanak:

“ETB2n eta REn [Radio Euskadin] lan egiteko, aurrerantzean, besteak beste, euskara maila dezentekoa eskatuko omen da, zeregin komunikatzailean jarduteko batik bat. Neurria polemikoa, ahots eta aurpegi distiratsu batzurentzat baztertzailea, kalitatearen kalterakoa eta beste izango dela iragarri dute EITB orain bezain erdalduna edo erdaldunagoa nahi dutenek. Ez du zertan. REn azken urteetan sartzen ari diren esatari gazteak, elebidunak gehienak, aisa hartu dute beterranoen eskarmentua, eta prestatuta dirudite bi hizkuntzetan lan egiteko, biren errealtateetan berdintasunean eta natural murgiltzeko. Ez dute jakingo Hollywoodek 1957an zeini eman zion Oscarra, esaterako, baina irakurria edukiko dute Harkaitz Cano edo Koldo Izagirreraren libururen bat, eta kapaz dira bertso saio bat itzultzailek gabe jarraitzeko”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Troika eta biolentziak

BERRIKITAN BILBON IZAN DA TROIKA (ELGA, NDF, EB), bankuen eta enpresa multinazionalen ordezkari-kin, hala nola Madril eta Gasteizko gobernuen exekutiba gorenekin. Horrek milaka laguneko protesta sindikal eta soziala eragin du. Eragileok probokaziotzat hartu dute langabezia, pobrezia, prekarietatea eta gizarte-desberdintasuna eragin duen finantza eta ekonomia krisiaren arduradunak martxoaren 3an etorri izana euskal lurretara. Manifestarien talde txiki batek biolentzia erabiltzeko hautua egin du, enpresa handietako egoitzen kontra eta hotel, lokal eta hiriko altzari zenbaiten kontra. Protesten deitzaileek ekintza horiekin loturarik ez dutela adierazi dute. Erakunde eta alderdi politikoei ez dute segundo bakarra ere itxaron gertaerak gaitzetsi eta gainerako guztiei euren gaitzespina eskatzeko.

Berriz ere biolentzia ezberdinen inguruko eztabaida azaleratu da. Kuriosoa da, biolentzia herri mugimendutik baino ez datorrenean hasten dira alderdi eta instituzioak

garrasika. Eurentzat, dirudienez, Troikak inposaturiko neurri ekonomikoak ez dira biolentzia, milioika lagun langabeziara, pobrezia eta bazterkeriara jaurtitzen dituzten arren. Areago, gaitzetsi beharrean, bere ordezkariak gonbidatu, babestu, abegitsu hartu eta txalotu dituzte Bilbon. Horixe da kapitalismoaren biolentzia estrukturala. Horixe da ohiko gobernuak babesten duten biolentzia. Hori da biolentzia probokatzaila. Ez dituzte erakusleihoak hausten, ezta kaleko altzariak ere, baina soldata eta dieta milioiudunak dituzten horiek jendea langabeziak eta gosez hiltzen dute. Eurak dira biolentoak, lepozuridunak izan arren. Eta jakina, desesperantza eta haserre sorrazten dute. Horregatik, kaputxariek ez badaramate ere, manifestarien talde txiki batek lokal komertzialak eta kaleko altzariak erasotzearen ardura euren da.

Juan Mari Arregi



1914a ospa dezagun Ukrainan gerra berria berotuz

Berriro gerra Europan bertan, I. Mundu Gerraren mendeurrenean? Kontinenteko jende xeheak, kazetari eta irakurlea barne, ondo egingo luke Ukrainan arrazoaia nork eta zenbat duen erabakitzen baino inperioen arteko talka berria bakean bideratu dadin ahalegintzen. Gatazkak okerragora egiten badu noren odola isuriko den gauza jakina da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

KRIMEAKO GERRAZ OROITU DIRA batzuk Ukrainako gatazkak eskualde horretan jauzi arriskutsua egin duenean. 1853 eta 1854an gertatu gerran Errusia atera zen galtzaile Britainiar inperioa, Frantzia eta Otomandarren inperioak –gehi Sardinia erresuma, artean Italiarik ez zen– osatutako koalizioaren laguntzaz, teorian neutrala zen Austria ere alde izan zutelarik.

Krimeakoa nola hasi zen honela kontatzen du ingelesezko Wikipediak, Shepard Clough historiagileari hitzak harturik: “Ez zen izan plan kalkulatu baten emaitza, ezta azken minutuan presiopean hartutako erabakiena ere. Izan zen bi urte baino gehiago hartzen zituzten erabakiez aski gogoetatzen ez zuten agintari ineptoei behin eta berriro egindako hanka-sartze tamalgarraren ondorioa”.

Krimean duela 150 urte 220.000 jenderi heriotza ekarri zioten guduen atzean baldin baziren gatazka erlijiozkoak, interes ekonomikoak, agintarien handinahia eta inperioen interes geopolitikoak, orobat gertatu zen justu hilabeteotan mendeurrena dela eta oroiten dugun I. Mundu Gerran. Ez alderatu hau Krimeakoarekin jendeen triskantzana: 16 milioi hildako, 20 milioi zauritu... Baina *Gerra Handia* ere txinparta batek sutu zuen; gutxi

asmatuko zuten Gavriilo Principe Sarajevon Austriako Franz Ferdinand artxidukea kalitzeak halako hondamendia ekarri behar zuenik Europa gainera.

Egun batetik bestera ohartu gara antzinako kontu zaharron gaurkotasunaz. Duela aste gutxi Ukrainako populazioa jazartzen ari zen estilo zaharreko bere gobernu eta agintarien kontra, Mendebaldeko Europarekin harremanak estutu nahian. *Euromaidan* bataiatu plazako matxinoen irudi epikoz mozkortu gintuzten hedabide nagusiek.

Beranduago, hango ekintzaile askoren jokabide lotsagabeki naziak harritu gintuen estreina, manatari berriek agintea hartu ondorengo erabaki traketsak gero, tartean populazioaren zati handi baten hizkuntza den errusierari ofizialtasuna kentzea, eta Errusiak erantzun militarrez lehenbiziko mugimendua egitearekin hasi gara galdezka benetan zer gertatzen ote den.

Telebistek eskaintzen dizkiguten irudi espektakularretara ohi garenoi, egunkari handi batzuek bertan dauzkaten korrespontsalen kronikak bestelako Ukraina azaldu digute asteetan barrena. Kultura eta hizkuntza desberdinetako eskualdeak eta elkarrekin bizitzeko urte luzez antolatutako moduak, gehi sortutako talkak. Mendebaldera gehiago

Associated Press agentziarentzako Darko Vojnovickek egindako argazkian, tentsio egoera Krimeako Simferopol hiritik hurbil Perevalnoye herrian Ukrainako armadak daukan kasernaren atarian, martxoaren 3an. Ate barrutik begira daude militar ukrainarrak, kanpoko aldetik militar errusiarrek sartzeko bezala irteteko bidea ixten dute barrukoek noiz amore emango zain, eta erdian mutiko txikia jolasean dabil jostailuzko hondeamakinari tiraka, gizon armatuen artean antolatutako dezaleten txikizioaz ohartzeke. Iazko azaroan Maidan Nezalezhnosti plazan gobernuaren kontrako protesta gisa hasirik, kaleko borroka gogortu ahala 98 herritar eta 29 polizia galdu dute bizia, zaurituak pare bat mila inguru. Otsailaren 22an oposizioak kargugabetu zuen Viktor Janukovitx presidentea. Biharamunetik hasi ziren errusiar etnikoen protestak. 27an hedatu ziren militar errusiarrek Krimean zehar.

begiratzen dutenak, Errusia hurbilago daukatenak, erlijio nagusia den eliza ortodoxoaren antolakizun berezietan ere mamitzen diren ezberdintasunak. Aldi berean Ukraina arras eslaboa.

Ikasi dugu egituraketa ekonomiko oso ezberdinak dauzkatala eskualdeek. Hots, menpekotasun diferentek. Eta alde bateko zein besteko indarrak mobilizatu dituztenak dirudun handiak izan direla. Magnateak. Halako interesak zeuden eta daude Ukraina zatitzeko arriskuan jartzeko?

Xake taulan bezala

Bartzelonako *La Vanguardia* Odesa hirira bidalita daukan Rafael Pochek bere kronika bikainetako batean idatzia du, gatazka honetan neurtzen diren indarrak alderatzen hasita, informazioaren frontearen Mendebaldeko hedabide-armadak direla nagusi.

“Pixkanaka –idatzi du Pochek– abian jarri da informazio globalaren makina. Jugoslaviako gerra ‘humanitario’ bilakatu zuen makineria, atzerriarrek Afganistan bigarren inbaditzea ‘terrorismoaren kontrako gerra’ bihurtzen, suntsipen masiborako Irakek omen zeuzkan armen mehatxua eta batean bezala bestean gerra pizteko dauden arrazoiak justuak saltzen dituen makineria



hori, topera hasia da lanean orain Krimean”.

Propagandako makinek –guz-tiek– gerrak behar duen geruza ideologikoa hedatzen dute. Baina 1914an koalizio inperial bateko eta beste inperioko milioika obrero-seme trintxeretan hiltzera aberria-ren edo are erlijioaren izenean eram-an zituztenean, jakina da beren odola isuri zutela sarraskira bidali zituzten ugazaba handien eta inpe-rioen interesen mesedetan. Orain Ukrainan ikusten ari garenak ere osagai nagusitzat geopolitika dauka.

Mendebaldea, esan nahi baita, militarki NATOk ordezkatzen duen inperioa, hemengo herritarrok gure izerdiz elikatzen duguna, mundua-ren berrantolaketan ari da azken

urteotan. European bertan guregan-dik kilometro gutxitara ezagutua dugu Balkanetako gerra. Baina Afganistandik hasita, Iraken barrena, Magrebeko errejimen aldaketa guztiak, Siriako gerra... Horretan ez da nobedadea Mendebaldea Erru-siari bizarrak ukitzen ikustea, ez da hain zaharra Georgian gertatua.

Beste inperioak, Errusiakoak, bere ustez dagokion eremu geoes-trategikoan atzerako urrats bakoitza kario ordainarazten du. Balkanetan ikusi zen, Georgian. Moldaviak pagatu zuen urruntzea Transnistria-ko eremua galdurik, honetaz ere orain oroitarazi gaituzte kazetari argienek. Krimean Vladimir Putin egiten ari denak ez du inor ezustean harrapatu behar.

Ukrainan Errusiak daukan inte-resa kasik ez dago arrazoitu beha-rrik: *bere* lurraldea du, kasik Errusia bezain errusiar, kulturaz, historiaz, geografiari dagokionez erreparatu besterik ez mapan. Eta gainera, Mendebaldera erregaia espportatze-ko ataka nagusia hortik dauka.

Azken haxe da Mendebaldearen irrika pizten duen gai nagusia, ener-gia iturrien pasabidea. Gehi Sobiet Batasuna desegin zenetik merkatua hedatzeko nahia, orain artean arazo handiegirik gabe burutu ahal izan duena Europaren erdi-ekialdean.

Idazten digute zenbait kazetarik, lekuan bertatik, ukrainarren gehien-goia dagoela aldi berean herrialdea baturik atxikitzearen eta Errusiare-kin lehentasunezko harremanak edukitzearen alde. Horren gainean trantsizio bat antolatu ez baina gatazkaren garrei haize eman eta itzulerako edozein bide ixteko aha-leginak ikusten direnez, pentsa lite-ke geopolitikaren interesak prest daudela Ukraina bilakatzeke inpe-rioei jokoan daukaten xake taulako mugimenduen pieza.

Mundua, eta zehazki Europa, krisi ekonomiko eta sozial oso gogorrean murgilduta egonik, herritarren artean joera populistak zabalduta dira. Gerra baterako erre-gai onak dira. Bakezaleak bihurtuko ote dira azkar ito beharrekoa barne etsai nagusiak?

Xakea balitz, Krimean Errusiak dorrea jan dio arerioari, baina jokal-dian erregina agerian utzi. Partida arriskutsua darabilte eskuartean ugazabek europarren kontura. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

HB ETA bezain kriminala denean

ETA-KO kide izatea edo harekin kolaboratu izana leporatuta, 12, 10 eta 8 urteko zigor eskaerak egin zituen fiskalak *Herriko tabernen auzia* –35/2002 sumarioa– deitu den honetan auzipetutako 34 pertsonentzat. Gehienak HB, Batasuna eta EHko kargu politikoak izandakoak dira. Auzipetutako 110 *herriko tabernei* dagokienez, beren jarduerarekin ETA finantzatzea leporatzen zaie eta zigor gisa haien konfiskatzea eskatzen da.

Auzipetuek, astea joan astea etorri bidaia luzeak egin behar izan dituzte eta sesio luzeak jasan Madrilgo San Fernando de Henareseko Auzitegi Nazionalaren aretoan. Jasandako espetxealdiak edo berau saihesteko fidantza gogorak ordaindu behar izana ere hori dira.

Joan den asteko bi sesioetan eta honetan hiruetan biziko dituzte egunik erabakigarrienetakoak. Martxoaren 6 eta 7an fiskaltzak behin-betiko eskaerak egin zituen, zigor eskaerak nabarmen murriztuz: 12, 10 eta 8 urteko eskaeretatik, 4 urte eta sei hilabete, 2 urte eta sei hilabete eta 2 urte eta 2 hilabetera iragan dira. Bederatziko talde batentzat askatasuna. Beste bi pertsona iragan martxoaren 6an utzi zituzten libre ahozko saioan bertan, fiskalak karguak erretiratu ondoren.

Eskaeretan argi da multzo handi bat espetxean ikusi nahi duela fiskalak, bi urte eta hilabete batzuetako zigorra eskatzen duelako. Bi urtetik beherako zigorrek ez dago espetxera joan beharrik, zigortuak indarrean dagoen beste zigorrik ez badu bederen. Akusazioen ikuspegitik epaiketa oso ahula izan da, aurretik “dena

da ETA” guardasolpean epaitu izan direnak moduan. Egunkaria auzia eta Udalbiltzakoan, oso argi geratu zen hori eta auzipetuak absolbitu egin zituzten. Ez zen berdin gertatu, adibidez, 18/98 edo Jarrai-Haika-Segirenean, eta dozenaka pertsona espetxera bidali zituzten, adibidez *Egin*-eko Administrazio Kontseiluko kidea izateagatik. ETA jardunean zen garaietan egin ziren epaiketak eta badirudi “dena da ETA” hori errazago irensten zela, horretarako delitu penala finkatzen duen gertakizunaren frogarik egin ez arren.

Epaimahaiak tesi hori onartzen badu, ondorioa larria izango da, Estatuak 110 ‘herriko tabernen’ hondasunak konfiskatuko dituelako

Orain ere ahozko saioan argi ikusi da sumarioan sumatzen zena: akusatuei leporatzen zaie ETako kidea izatea, baina fiskalak eta akusazioak ez dira gai erakusteko zein gertakizun zehatzaren bidez gauzatzen den kideztza –edo kolaborazio– hori. Ustezko froga horiek bi oinarri dituzte: bat, azken 30 urteetan ETari edo beste erakunde politiko batzuei atzemandako agiriak; eta bi, hauei buruz poliziek edo guardia zibilek egindako iruzkinak, beti ere modu ahul eta erabat partziallean egindakoak, hainbatetan abokatuaren galderek agerian utzi duten moduan: “Baltasar Garzonek agindu zizkigun txostenak eta gure lana hipotesietan oinarritua zegoen”, zioen poliziaren informazio buruak abokatuaren galderi erantzunez. Joserramon Bengoetxea, Nazario Oleaga, Iñaki Lasagabaster eta Txema Montero

moduko jurista ezagunek behin baino gehiago salatu dituzte jokamolde hauek.

Kazetari hau martxoaren 6 eta 7ko ahozko saioetan egon zen, bi fiskalek beren azken eskaera eta hitzak egin zituztenean, eta ez zuen etakide izatearen akusazioa sostengatzeko gertakizun bakarra entzun: atentatu hau egin edo lagundu zuen, honetan kolaboratu, hau gorde, bestea idatzi ETari... ezertxo ere ez. Dena zen, HBko Mahai Nazionalako kide da, KASeko kidea, HASiko kongresuan parte hartu zuen... Beraz,

akusatuak ustez ETakoak dira, paper batzuetan esaten delako HB ETaren masa frontea eta fronte instituzionala dela. Edo larriagoa, fiskaltzaren jarduera urrutiago ere joan zen eta HB bera kriminali-


zatzen saiatu zen. Ez zen HBkoa denez ETakoa da, baizik eta HBkoa denez, hori nahikoa da penalki zigortzeko, HB berez delako talde kriminala: ETakoa dela esateko gertakizun zehatzik ez badago, esan dezagun HBkoa dela eta listo, baina, jakina, horretarako HB erakunde kriminala dela esatea ezinbestekoa da.

Fiskalak, halaber, indar berezia jarri du *herriko tabernak* HB direla erakusten, HBko herriko taldeak agintzen zuela herriko tabernetan. Behin eta berririo aritu zen horrekin. Helburua? Taberna edo elkarre horiek talde kriminalaren tresna zirela eta haren zerbitzura zeudela. Eta epaimahaiak tesi hori onartzen badu, ondorioa larria izango da: estatuak 110 *herriko taberna* edo hauetako askoren hondasun guztiak konfiskatuko dituelako. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



Argiako harpidedunentzat



HAMLET Ermua

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 28 · 22:15
Cinema

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

1



HAMLET Agurain

2 lagunentzako bina sarrera
Martxoak 30 · 19:00
Harresi Aretoa

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3



Itsasoaren emazteak

Oinkari dantza taldea
Ika teatroa

5 CD opari

www.baga-biga.com

4



Erlea gure sendagile

2 liburu
www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2405. Argia)

HAMLET - BEASAIN

- Lorenzo Zubeldia Aierbe (Lizartza)
- Belen Irastorza Armendariz (Zaldibia)

HAMLET - IGORRE

- Joseba Etxebarria Uriarte (Larrabetzu)
- Hilario Berasategi Arrieta (Idiazabal)

EKAINBERRI

- Mikel Sarriegi Etxezarreta (Beasain)
- Larrako Aek Euskategia (Bilbo)
- Andoaingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)

IRUÑEAKO PLANETARIOA

- Juan Karlos Carballo De La Torre (Deustua, Bilbo)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Xabier Allur Zunzunegi (Hernani)

ARGIA kamiseta

- Xabier Elozegi Aldasoro (Baiona)
- Juan Ignacio Elozegi Aldasoro (Berastegi)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



%60

BIRZIKLAPENA



KONPOSTATZE
PLANTA



TRATAMENDU
MEKANIKO
BIOLOGIKO
PLANTA



KUTSADURARIK
GABEKO
GORDETEGIA



GIPUZKOA ZABORTEGIRIK GABE



Gipuzkoako Foru Aldundia



Gipuzkoa
BERRIA